

Año LVII. urtea

140 - 2025

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

**Mendigatxaren
gutunetako <ss>:
hautu grafikoaren jatorriaz**

Leyre Rojo Horrillo

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LVII. urtea - N.º 140. zk. - 2025

Uztaila-abendua / Julio-diciembre

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Eguraldiaz mintzatzea, kultur jarduera Kepa Diéguez Barahona	229
Exploring lexical diversity in Basque news: original vs. machine-translated texts Amaia Solaun Martínez, Nora Aranberri Monasterio	273
Mendigatzaren gutunetako <ss>: hautu grafikoaren jatorriaz Leyre Rojo Horrillo	317
Hizkuntza-errutinak: euskarazko ahozko oinarrizko komunikazioan trebatzeko ibilbidea Agurtzane Azpeitia Eizagirre, Olatz Bengoetxea Manterola, Idurre Alonso Amezua	349
Genero-alborapena Elia itzultzaile automatikoan, euskaratik gaztelaniarako norabidean Klara Ceberio Berger, Aitziber Elejalde, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Eneko Sagarzazu Martinez, Zuriñe Sanz-Villar, Naroa Zubillaga Gomez	383
Bigarren Hezkuntzan eskola-hizkuntza garatzeko diziplinarteko diseinu bat: kasu-azterketa bat Oihana Leonet, Olatz Lucas, Ane Lamarka	405
Intimitatearen idazketa Miren Agur Meaberen <i>Kristalezko begi bat</i> liburuan Elena Olave Duñabeitia	433
Hizkera-mailaren araberako ahoskera-aldakortasuna: euskara ikasteko modua aztergai Irati Urreta Elizegi	451
Karmele Erraztiren iturriak euskal emakume-eredua eta olerkarien genealogia femeninoa eraikitzeko Enara San Juan Manso	479

Sumario / Aurkibidea

Euskarazko alfabetatze goiztiarra: dispositibo didaktikoen ezaugarritzea eta sailkapena Diego Egizabal Ollokiegi, Agurtzane Azpeitia Eizagirre, Arantza Ozaeta Elorza	505
VARIA	
<i>In memoriam.</i> Koldo Artola Kortajarena (1938 – 2025) Ekaitz Santazilia	543
Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals	551

Mendigatxaren gutunetako <ss>: hautu grafikoaren jatorriaz

La <ss> de las cartas de Mendigatxa: sobre el origen de la estrategia gráfica

The <ss> in Mendigatxa's letters: on the origin of the graphic strategy

Leyre Rojo Horrillo
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU
leyre.rojo@ehu.eus
<https://orcid.org/0009-0001-2678-753X>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv140.3>

Egitasmo hau Eusko Jaurlaritzak emandako Doktoratu Aurreko Programako (2023 – 2024) laguntzari esker egin den doktorego-tesiaren zati baten emaitza da, eta *Monumenta Linguae Vasconum 6: Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca* (MINECO, PID2020-118445GB-I00) ikerketa-proiektuaren eta *Hizkuntzalaritza Diakronikoa, Tipologia eta Euskararen Historia* (IT1534-2) ikerketa-taldearen barnean egin da. Nire esker ona adierazi nahi diet Joseba A. Lakarrari eta Eneko Zuloagari testu honetan egindako oharrengatik. Eskerrak, halaber, bi berrikusle anonimoei. Esan gabe doa egon litezkeen akatsak nireak besterik ez direla.

Jasotze data: 2025/01/13. Behin-behineko onartze data: 2025/05/15. Behin betiko onartze data: 2025/10/14.



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago.

LABURPENA

Artikulu honetan, Mariano Mendigatxaren gutuneriaren idazketa aztertuko da; zehazki, egile kallesak euskarazko igurzkari sabaiaurrekoarentzat sistematikoki darabilen <ss> idazketa. Guk grafema horren jatorrian sakonduko dugu, Mendigatxarekin harreman zuzena edo zeharkakoa izan zezaketen idazleen testuak arakatuaz. Horrela, erakutsiko dugu <ss> ez zela Mendigatxaren hautu grafiko isolatua izan eta Bonaparteren Hegoaldeko laguntzaile batzuek ere erabili zutela. Halaber, ikusiko dugu Bonaparte ezin izan zela grafema horren sortzailea izan, baina litekeena dela horren erabilera Nafarroako ekialdeko haranetan zabaltzeko ardura hartzea, eremu horretan estrategia bakarra bihurturik.

Gako hitzak: Mariano Mendigatxa; Mendigatxaren gutuneria; erronkariera; <ss> grafema; corpusaren azterketa.

RESUMEN

En este artículo se analiza la grafía de la correspondencia de Mariano Mendigatxa; concretamente, la grafía <ss> que el autor roncalés usa sistemáticamente para expresar la fricativa prepalatal. Profundizaremos en el origen de este grafema examinando los textos de escritores que pudieron tener una relación directa o indirecta con Mendigatxa. De esta manera, demostraremos que <ss> no fue una elección gráfica aislada de Mendigatxa, sino que fue empleada también por algunos de los colaboradores de Bonaparte. Asimismo, veremos que Bonaparte no pudo ser el creador de dicho grafema, pero que posiblemente difundió su uso en los valles del este de Navarra, donde se convirtió en la única estrategia.

Palabras clave: Mariano Mendigatxa; correspondencia de Mendigatxa; roncalés; grafema <ss>; análisis del corpus.

ABSTRACT

This article analyses the writing style of Mariano Mendigatxa's correspondence; specifically, the <ss> spelling employed systematically by this roncalese author to express the prepalatal fricative. We will delve deeper into the origin of that grapheme by examining the texts of who may have had a direct or indirect relationship with Mendigatxa. In this way, we will demonstrate that <ss> was not an isolated graphic choice of Mendigatxa, because it was also used by some of Bonaparte's southern collaborators. Also, we will prove that Bonaparte could not have been the creator of that grapheme, but he possibly spread its use through the valleys of eastern Navarre, where it became the only choice.

Keywords: Mariano Mendigatxa; Mendigatxa's correspondence; Roncalese; grapheme <ss>; corpus analysis.

1. SARRERA. 2. MENDIGATXAREN GUTUNERIA. 3. MARIANO SATURNINO MENDIGATXA ORNAT. 4. XVIII. MENDEKO GRAFIA-IRAULTZA. 4.1. Grafia-iraultza: txistukariak. 4.2. Igurzkari sabaiaurrekoa. 4.3. Mendigatxaren <ss> igurzkari sabaiaurrekoa. 5. MENDIGATXAREN <SS> GRAFEMAREN JATORRIA ARAKATUAZ. 5.1. Bonaparteren kolaboratzaileak. 5.2. Azkue. 5.3. *Gaceta del Norte*. 6. BONAPARTEREN ERAGINA <SS>-REN ERABILERAN. 6.1. Bonaparteren euskarazko sistema grafikoa zehazten saiatuaz. 6.2. Campion. 7. <SS>-REN ERABILERAREN AITZINDARIA AURKITU NAHIAN. 7.1. Elizalde. 7.2. Printzearen kolaboratzaileen harreman-saretik aldenduaz. 8. ONDORIOAK. 9. ETORKIZUNERAKO. 10. ERREFERENTZIAK. 11. ERANSKINA.

1. SARRERA

Benetan markagarria da Mendigatxaren gutuneriak hainbat ikertzailerengan eragin duen zirrara, eta ospe horren adierazgarri egin diren edizioak ditugu –beste erronkariarazko lekukotasun batzuek ez dute arreta bera jaso, gehienek oraindik ez baitute edizio lanik–: Irigoien (1957), Estornés Lasa (1984) eta Pérez eta Angos (2020) bikotearena. Lan horietan, ordea, ez zaio Mendigatxaren idazketa-estiloari behar bezalako arreta eskaini, eta guk euskaraz egoki idazteko ahalegina antzeman dugu.

Garai hartan euskarak ez zuen sistema grafiko bateraturik eta, hori dela eta, garaiko idazleek inguruko erromantzezko sistema grafikoa egokitu behar zuten euskaraz idazteko. Mendigatxak bere eskutitzetan hainbat aldaketa grafiko erakusten ditu euskararako sistema beregain bat lortzeko ahaleginean. Horien guztien artean, azpimarratzekoa da <ss> grafemaren erabilera: bidankoztarrak grafema hori euskarazko igurzkari sabaiaurrekoa adierazteko baliatu zuen. Hautu horren sistematikotasunak, halaber, garrantzia hartzen du garaiko autoreen artean fonema bera adierazteko izan ziren desadostasunen aurrean.

Horrenbestez, Mendigatxaren <ss> erabileran sakontzea erabaki dugu, eta hautu horren jatorria zehaztea dugu helburu, alegia, erronkariarraren estrategia berezia izan ote zen ala beste iturriren batek eragin ote zuen. Horretarako, Bidankozeraino irits zitezkeen literatura-oihartzun guztiak aztertu ditugu. Horrela, Mendigatxak izan zitezkeen eragin literario nagusiak arakatu ditugu: Bonaparteren laguntzailea izan zela jakinik, printzearen gainerako kolaboratzaileen idazketa-ereduak aintzat

hartu ditugu (ikus § 5.1). Era berean, garaikideak diren beste erronkarierazko idazleen testuei ere erreparatu diegu (ikus § 5.1.1); eta gutunen bidez Azkuerekin harremanetan zelarik, hizkuntzalariak izan zezakeen eragina ere kontuan hartu dugu (ikus § 5.2).

Edonola ere, <ss> grafemaren idazketan sakondu aurretik, gutuneriaren osaera (ikus § 2) eta idazlearen bizitza (ikus § 3) laburki aurkeztuko ditugu. Ondoren, Mendigatxaren idazketa eredian jarriko dugu arreta, baina agerian utziko ditugu ikusitako hutsuneak eta, beraz, etorkizunerako aintzat hartu beharko lirakekeen ikerketa-lerro berriak (ikus § 9).

2. MENDIGATXAREN GUTUNERIA¹

Mendigatxaren gutuneria² erronkarierazko lekukotasun ezagunenetako bat da, corpus aberatsa izateaz gain –36 gutun jaso dira³–, Azkue hizkuntzalariarekin izandako harremanaren lekuko ere badelako. Kallesak Bidankozetik idazten ditu hizpide ditugun eskutitz hauek: hala zehazten du berak gutun guztien hasieran. Are gehiago, haietarik bat, 1904ko irailaren 27an igorritakoa, herriko udalaren paperean idatzita dago⁴.

Corpus honen osaerari dagokionez, Bidankozetik bidalitako lehendabiziko gutuna 1902ko ekainaren 6koa da eta, 14 urte igaro eta gero, Azkuek azken gutuna jaso zuen 1916ko abuztuaren 30ean. Harremanek ez zuten maiztasun jakinik izan: 1903tik 1905era arte Mendigatxak erregulariki idatzi zion Azkueri, baina 1905etik lau urte igaro ziren berriz berarekin harremanetan jarri zen arte. Azken eskutitzak idazteko hartu zuen denbora luzeak zerikusia izan lezake pairatzen zuen osasun-egoerarekin, berak argi zehaztu zuen moduan: «escepto yo que, desde tienpo ha, estoy atacado de una enfermedad incurable que se llama 83 años» (1915/02/12). Horregatik, gutun horren amaieran zioen: «Ya basta para hoy porque me he cansado quedandome como sienpre».

Esan beharra dago testu guztiak ez daudela erronkarieraz idatzita: orotara 23 bai, baina gainerakoak gaztelaniaz daude. Azpimarratzekoa da Mendigatxak idatzi zituen

1 Mendigatxaren gutunen eskuizkribuak lortzeko, Pruden Gartzia Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboko zuzendariarekin harremanetan jarri ginen, eta berari zor diogu eskuizkribuak lortu eta ikerketa-lana erraztu izana. Horregatik, Gartzia jaunarentzat da gure esker ona.

2 Azkue Biblioteka eta Artxiboko RMAren 2.01.7. gutuneriari dagokio.

3 Esan beharra dago Mendigatxaren gutunerian Francisco Zubirik Azkueri bidalitako eskutitza ere biltzen dela: Bidankozeko udalaren idazkari zenak 1915eko urriaren 14an Azkueri laguntza eskatuz gaztelaniaz idatzi ziona; hain zuzen ere, Mendigatxaren bizitzako azken urteak ziren, baina senideek ez zuten zahar-egoitzara eraman nahi «puesto que a todos les parece que sería faltar gravemente ante el Señor» eta, horregatik, Zubiri Azkuerekin harremanetan jarri zen «si V. pudiera hacer que él estuviera quieto en casa» eskatzeko.

4 Baita Francisco Zubirik Azkueri bidali zion gutuna ere (1915/10/14): orriaren ezkerreko bazterrean «Secretario del Ayuntamiento de Vidangoz» zigilua ageri da.

azken gutun gehienak gaztelaniaz daudela eta hori, beharbada, azken urteetako Bidankozeko egoera soziolinguistikoaren erakusgarri izan litekeela: «Mariano jaio zen garaian euskara nagusi zen herrian, baina hil zelarik, berriz, bakan batzuek baino ez zuten ezagutzen. Beraz, hizkuntz galeraren lekuko aparta izan zen» (Larrañaga, 1997, 283. or.). Hau da, agian hizkuntzaren nagusitasuna/presentzia ez zen 1902koa –lehenengo gutuna idatzi zenean– bezain indartsua eta, hori dela eta, euskara gutxitu ahala, Mendigatxaren erabilera ere urriagoa bihurtu zen.

Edonola ere, hizkuntzaren endekapena kontzienteki bizi izan zuen eta bere testuetan agerikoa da sentitzen zuen ezintasuna, hizkuntzaren heriotzaren lekuko izatearen jakitun: «Tenpra berian, aski sentimenduareki, erraiten daud enazala trebe llober uskararen ikasaraiztra; nola ezbaitei ñonere entzuten ele bat ezik nik erraiten dabeidanak, eztokei ikas ñolako guisan» (1903/04/25); «Gorian dagon tenpran, alaba eta ni, alkar mintzaten gra uskaraz; deiten tigu orrek erraiten daizkugun gente adineco guciuak; baya nago ustetan alaba eta nitarik erkiten eztiona, eztiola erkinen ñortarik iri kontan» (1903/09/28). Pérezek azaltzen duenez:

Inés eta Juan [Mendigatxaren alaba eta suhia] ezkondu eta hiru urte geroago, 1886an, finka dezakegu Mendigatxa etxeko uskararen erabileraren «itzulerarik gabeko puntua», eta Marianoren emaztea zen Josefa Pérez Markoren heriotzarekin lotuko genuke: urte hartako maiatzaren 21a. Hizkuntza mintzatuaren euskarria izango zen emaztea hil ondoren, Mendigatxak bere eremu pribatuenean ezin zuen erabili, eta, pixkanaka, etxean geratu zen alabarekin ere hitz egiteari utziko zion, honen senarrarekin erabiltzen zuten gaztelaniaren mesedetan (baina, bi hamarkada geroago Azkueri idatzi zion eskutitz batean agerian geratzen den bezala, garai batean hori izan zen etxekoen artean erabilitako hizkuntza eta haren erabilera noizbait eten egin zen, agian une hartan berean). Eta horrela, Mendigatxaren gainerako bilobek, 1886 eta 1899. urteen artean jaioek, ez zekiten uskara, Azkue ezagutu ondoren Mariano gazteenei alferrik irakasten saiatu arren (Pérez, 2018, 411. or.).

Hala ere, baliteke gaztelaniaz idaztea ez izatea soilik Bidankozeko egoera soziolinguistikoaren ondorioa; Azkueren hizkerak ere eragina izan zezakeen: bidankoztarrak behin baino gehiagotan aitortu zuen hizkuntzalariaren euskara ulertzeko zailtasunak zituela: «ni ere bara nein eskribitiatik Bilbabera, ceren anich itzen onki kausitako biar dud pensamentiua eraman antzinadaneko tenpretra antzerik baidazkad. Corregatik costatan zaiztad orren cartak» (1903/10/29); «como no entiendo el vascuence de esa tierra» (1915/02/12). Horregatik, biek elkar hobeto ulertuko zutelakoan, gaztelaniara jotzen zuen: «me ha parecido mejor hacerlo en castellano, dando a cada pregunta su respuesta» (1903/06/22); «para darle de entender mejor, me ha parecido acerlo en castellano» (1904/11/22); «tanto por esta pregunta como por otra cualquiera que le ocurra, debe V. enterarme en castellano» (1915/02/12).

Dena dela, Mendigatxaren eskutitzak hobeto ulertzeko, ezinbestekoa da idazlea bera hobeto ezagutzea. Hori dela eta, hurrengo atalean bere bizitzari buruzko zertzelada garrantzitsuenak aurkeztuko ditugu, corpusaren ulermenerako lagungarri izan daitezkeelako ustean.

3. MARIANO SATURNINO MENDIGATXA ORNAT

Corpusaren egilearen biografia arakatzea behar-beharrezkoa da; izan ere, horrek aukera ematen digu beraren erronkarierarekiko lotura ziurtatzeko (cf. Rojo, 2023, 145. or.). Mariano Saturnino Mendigatxa Ornat 1832ko otsailaren 10ean jaio zen Bidankozen. Gurasoak ere Bidankoze herrian jaiotakoak ziren: «Guraso biak, Martin eta Meltxora, herrikoak zituen: Aita *Mendigatxa* etxekoa eta ama *Ornatekoa*» (Lekaroz, 2023, 96. or.), eta, horri esker, Mendigatxaren lehen hizkuntza euskara zela ziurtatu ahal da.

Askok agerian utzi dute erronkariarra ikasketa-maila apalekoa bide zela: «Gore Mendigatxa iriko ikasguara xotan zen eta korregatik etzion berze ikasgu berezirik artu» (Estornés Lasa, 1984, 56. or.). Pentsamendu hori Prudentzio Hualde Mayoren eta Mendigatxaren arteko konparaziotik eratorria izan daiteke⁵, biak Bidankozen jaiotakoak eta Bonaparteren laguntzaileak izan baitziren. Gainera, Hualde Mayo idazle fidagarriagotzat jo ohi da erronkarierazko lekukotasunen artean, printzeak berak ebanjelioa eta katixima itzultzeko ardura eman baitzion. Gotzon Pérezek gogorarazten du, ostera, Mendigatxak «maisu on batengandik ikasteko aukera izan zuela» (2018, 401. or.). Zehazki, Pascual Ramón Nicolao izan zuen irakasle, Garden jaioa eta Bidankozera ezkondua, eta Pérezek (2018, 401. or.) argitzen du irakaslea beste herri batekoa izateak ez zuela eraginik izan Mendigatxaren hizkeran: «beraz, Mendigatxaren jaioterrian hitz egiten zen azpieuskalki bera hitz egingo zuena (erronkarierako Bidankozeko azpieuskalkia Bidankozen, Burgin eta Garden hitz egiten zen)».

Nolanahi ere, ez da harritzekoa Bonapartek Hualde Mayo laguntzaile aukeratu izana, Pérezek (2018, 405. or.) argi dionez, printzeak hiltun-profil bereko kolaboratzaileak bilatzen zituelako: «Prudencio Hualde erretorea laguntzaile aukeratu izana logikoa dirudi, bere kargua zela-eta herriko gehiengoak baino kultur maila handiago zuelako, alde batetik, eta, bestetik, bertakoa zelako, herrian jaioa, eta, horren ondorioz, bere sorterriko hizkera menderatzen zuelako» (Pérez, 2018, 405. or.). Aitzitik, ez zen ohikoa herri bereko bigarren laguntzaile bat ere izatea eta, horregatik, Pérezek uste du «printzipioz kultur maila txikiagokoa eta gazteagoa zen Mendigatxarengan *uskararekiko* gaitasun berezia ikusiko zuelakoan gaude» (2018, 405. or.).

Zerbait berezi horrek ez du zertan linguistikoa izan behar, Mendigatxak hogeita bat urte besterik ez zituenean –1853an, alegia– poltsazain aritu baitzen, eta, ez hori bakarrik, 1859an Bidankozeko alkatetza eskuratu zuen lehenengo aldiz (cf. Pérez, 2018). Horregatik guztiagatik, argi dago bidankoztarrak zerbait berezia izan zuela, soziologikoa ere izan zitekeena, eta horretaz jabetu zen Bonaparte, bai eta geroago Azkue ere.

Bestalde, hogei urterekin Josefa Pérez Marko uztarroztarrarekin ezkondu bazen ere, emaztea ez zen erabat ezezaguna Bidankozen: «esan balar [sic; *behar?*] da Josefaren

5 Adibidez, Angosek Hualde Mayoren ebanjelioaz hitz egiten duenean: «Erronkarieraz idatzirik dagoen testurik garrantzitsuena dugu, Mariano Mendigatxa Ornat bidankoztarrak R.M. Azkueri bidali zizkion eskutitzak gutxietsi barik» (Angos, 2007, 13. or.).

aita ere Bidankozekoa zela, Diego etxekoa hain zuzen ere» (Pérez, 2018, 403. or.). Hori dela eta, Mendigatxaren harreman-sareek Bidankozetik urrundu gabe jarraitu zuten.

Hurrengo urteetan, aurreratu dugunez, bidankoztarra Bonaparte printzearen laguntzaileetako bat ere izan zen, esate baterako, Pérezek (2018, 404. or.) dionez, 1866an printzeak Bidankoze bisitatu zuenean Mendigatxa ezagutu zuen⁶. Ondoren, 1869an, Bonapartek «lurraldea berriro bisitatzeko asmoa zuen euskalkien gaineko ikerketetan sakontzeko, baina Espainian bizi zen egoera politiko eta sozial nahasiak iritziz aldarazi zuen» (Pérez, 2018, 406. or.). Horren ondorioz, bere laguntzaileak Donibane Lohizunen bildu zituen eta batzar horretara Mendigatxa «mando baten gainean, xoan zen, mendiz mendi» (Estornés Lasa, 1984, 56. or.). Esan beharra dago kallesaren parte-hartzea funtsezkoa izan zela: topaketa horri esker, 1872an⁷ Bonapartek euskal aditz-formen gaineko lana osatu eta argitaratu zuen, euskalkien artean erronkaria ere barne harturik.

Bonaparte printzea hiltzean, Azkuek Erronkaribarreko euskararen ikerketari jarraitu penatzen zion eta, horretarako, Mendigatxarekin harremanetan jarri zen: «Behinola Bonaparteri lagundu zion bidankoztar hura nahi izan zuen Azkuek alboan: uda hartan berean⁸ elkartu ziren biak Ligin» (Lekaro, 2023, 97. or.). Adiskidetasun horren lekuko, hasieran aurreratu dugunez, lan honetan aztertuko ditugun gutunak dira. Haatik, Mendigatxa ordurako adineko gizona izanik -70 urte baitzituen-, Azkueri «ohartarazi zion esanez agian berarengandik espero zena emateko ez zela gai izango eta beldur zela ez ote zen alferrikako bidaia izango» (Pérez, 2018, 412. or.). Lehenengo eskutitzetik jada jakinarazi zion aipatutakoa: «conociera yo si le seré útil para satisfacer los deseos del fin que se ha prometido. No quisiera que le sucediera lo que le sucedió al referido príncipe, que se le presentaban hombres de lejanas tierras y examinados los despachaba el día inmediato diciéndoles que nada podía hacer con ellos» (1902/06/06).

Hala ere, Mendigatxa ez zen jabetu Azkueri eman zion informazio baliotsuaz; izan ere, bere gutunei esker hizkuntzalariak erronkarierari buruzko deskribapen zehatza eta oparoa egiteko aukera izan zuen. Horrela, *Diccionario vasco-español-francés* (1905-1906/1984)⁹ eta *Particularidades del dialecto roncalés* (1931)¹⁰ lanak argitaratu

6 Lekarozek (2023, 96. or.), berriz, beste proposamen bat du: «Urte haietan ezagutu zuen Luis Luziano Bonapartek Mariano Mendigatxa; 1857an seguruenik». Dena dela, Pérezek (2018, 404. or.) aitortzen du «Ezin dugu ziurtatu, ordea, haien arteko lehenengo kontaktua izan ote zen». Horregatik, beharbada Lekarozek lehenengo kontaktu horretaz dihardu.

7 *Études sur les trois dialectes basques des vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal, tels qu'ils sont parlés à Aribé, à Jaurrieta et à Vidangoz* argitalpenaz ari gara (ikus § 10. erreferentziak).

8 1902ko udari buruz dihardu Lekarozek.

9 Azkuek bere hiztegiko eskaintzan esaten du «pasé luego corta temporada en Otxagabia (valle de Salazar), haciendo estudios sobre el roncalés y la variedad salacencia del BN» (1905-1906/1984, 11. or.). Horretarako, hiru bilera antolatu zituen: bi Bilbon, eta beste bat Ligin. Ligin «uno del roncalés» eta Bilbon egin zen azken batzarrean «una roncalesa» (1905-1906/1984, 11. or.) izan zituen laguntzaile; zehazki, «Mariano Mendigacha de Vidangóz» eta «Vicenta Garde de Uztarroz» (1905-1906/1984, 12. or.).

10 Azkuek hitzaurrean aitortzen du Mendigatxaren laguntza izan zuela: «Antes de entrar en materia quiero invocar la memoria de mi patriarcal amigo y excelente colaborador Mariano Mendigacha» (1931, 210. or.).

ahal izan zituen¹¹. Ez hori bakarrik, «Mendigatxak Erronkaribarko uskara, Bidan-kozeko ohiturak, bizimoduak, eguneroko pasadizoak, koplak, ipuinak, abestiak, esaera zaharrak eta beste kontu askoren berri ematen zuen» (Pérez, 2018, 412. or.). Beraz, Azkuerentzat igorritako informazioa probetxugarria izateaz gain, corpus hori hurrengo ikertzaileentzako ere altxor soziolinguistiko, literario eta etnografiko bilakatu da: «hala izan ez balitz, gure egunetara iritsi ez diren hainbat gaiez ez genuke ezer jakingo» (Pérez, 2018, 412. or.).

Orain arte esandakoaren ondorioz, ez dezagun pentsa Mendigatxa ikasketa apaleko gizona zenik: Pérezek (2018) gogorarazi duen bezala, Bidankozen irakasle ona izan zuen eta, nahiz eta Bonaparteren itzulpenen egile nagusia ez izan, printzearen konfiantzazko lekuko ere izan zen, eta, horregatik, zenbait lan Mendigatxari zor zaizkio¹². Halaber, Azkuek erronkarieraren gaineko lan mardula egin ahal izan zuen, kallesaren laguntza eta gutunetan jasotako informazioari esker, ikusi berri dugunez.

Hala ere, ez bakarrik hizkuntzalarien argitalpen kopuruaren edo Mendigatxaren biografiaren bidez jakin dugunagatik, baizik eta gutunetan bertan ere agerikoa da bere euskara-maila ez zela apala, eta horren alderdi bat da, hain zuzen ere, artikulua honetan dakarguna: gutunetan egileak fonemak idatziz ondo adierazteko duen kezka. Hau da, euskararen grafia-sistema estandarizatu aurretik, ohikoa zen euskal idazleek inguruko erromantzezko sistema grafikoa egokitu behar izatea euskaraz idazteko. Hala eta guztiz ere, ohartu gara Mendigatxak euskararen nolabait zehaztutako ortografiarekiko leialtasuna erakusten duen sistema-grafikoa erabiltzen duela; erdarazko gutunetan ere tartekatzen du¹³.

4. XVIII. MENDEKO GRAFIA-IRAULTZA

Dena dela, Hegoaldean XVIII. mendetik¹⁴ ezaguna da aipatutako kezka: «euskarari nortasun grafikoa eman nahi zaio, grafia ahoskerari egokitu, erdal grafietatik heredatutako anbiguotasuna eta koherentziarik eza gainditu eta –garaiazen azken aldean batik bat– grafia batasuna lortu» (Urgell, 2018, 607. or.). Aldaketa horien aitzindari Larramendi izan zen eta «sekula ortografiarik proposatu» ez arren (Urgell, 2018, 608. or.), «bazuen sistema bat, berezko sistema bat, aski bateratu eta berritzaile, literatur hizkuntzan ondorenak izan zituena» (Urgell, 2018, 608. or.). Horregatik, Larramendiren (1745)

11 Azkuek ipuinak biltzeko Mendigatxa laguntzaile ere izan zuen *Euskalerrriaren yakintza* lanean: «RON-CAL: Mariano Mendigatxa, Bidangoz edo Bidankoze: 16, 136, 151, 202, 226» (Azkue, 1935-1947, 13. or.). Zehazten diren horiek, hala ere, ez dira gutunieran jaso diren istorioak.

12 Geroago ikusiko dugunez (cf. § 6.1), Mendigatxak Itun Zaharreko 50. salmoa erronkarierara itzultzeko ardura ere hartu zuen.

13 Hau da, jarraian zehaztuko ditugun grafia berriak euskarazko testuetan oro har ere erabiltzen ditu, hala nola <n> -<pl-b> aurrean eta <ś> igurzkari sabaiaurrekorako: *clis̃co*, *śurdo*.

14 Lehen Euskara Modernoaren garaiaz ari gara (1745 – 1876). XVIII. mendea ardatz hartu dugu, garai honetan euskararentzako sistema grafiko bateratu bat sortzeko kezka pizten hasia baitzen. Mendigatxa 1832an jaio zen, eta berarengan eragina izan zitzakeen harreman-sareak ere XIX. mendekoak dira (cf. § 5). Hori dela eta, garai horretako gertaerak bereziki nabarmenduko ditugu.

ekarpenari esker, *Diccionario de Autoridades* (1726) ereduari jarraituz, <ç> grafema frikari lepokaria irudikatzeko betiko baztertu zen, <h> baliatzen hasi zen¹⁵ eta «lapurterazko lekukotasunetan ikasitako <tz> eta <ts>» (Urgell, 2018, 608. or.) afrikatuen erabilera zabaldu zuen. Azken ekarpen hori grafiaren historiarako aldaketa garrantzitsuenetarikoa bat bihurtu zen, txistukari frikarien eta afrikatuen arteko bereizketa ekarri baitzuen, eta ondorengoko testuetan izan zuen eragina (cf. Lakarra, 1985, 243. or.).

Larramendirekin batera, Kardaberatzek (1761) proposatu zuen Hegoaldeko idazleek <h> eta <v> ez erabiltzea, eta Larramendik <iñ> –hitz bukaeran <in> edo <iñ>– idazten bazuen ere, Kardaberatzek <ñ> grafemari eustearen alde egin zuen. Halaber, Urgellen (2018) arabera, Añibarrok, Zabalaen laguntzaz, beste lau berrikuntza nabarmen ekarri zituen 1821. urte inguruan: <y> hitz hasieran erabiltzea <j>-ren ordeztze, eta bokal arteko <y> mantentzea, <qu> baztertzea eta horren ordeztze <k> sartzea, eta, azkenik, -b eta -p aurrean <n> idaztea.

Iparraldeko grafiari dagokionez, Urgellek (2018, 610. or.) dionez, «Duhalde idazlea dugu euskal grafia goitik behera berriztatzen aurrena» eta «proposatu zituen aldaketek *Meditazioneak* argitaratuan (1809) ikusi zuten argia lehenengoz [...] nahiz *Birjinia* eskuizkribuan (1783 – 1784) jadanik izan»: *e-/i-* aurrean <k> eta <g> erabiltzea, <v>, <ç> eta <tç> grafemak baztertzea eta, horiez gain, bokalen artean <j> idaztea. Hark egindako aldaketen ildotik, Iparraldean beste idazle batzuk ere arduratu ziren grafia alorraz, besteak beste, Darrigol (1827) eta Abadia (1836) idazleak, baina frantses grafiaren ohitura eta erabilerarekin loturik zeudenez, Mendigatxaren kezketatik urrun kokatzen dira (cf. Urgell, 2018, 610. or.).

Azaldutako Hegoaldeko berrikuntza horietako asko Mendigatxaren gutunetan ere ikus daitezke; horregatik, aurretik azpimarratu dugun kalitate grafikoaren kezka (cf. § 3) bat dator LEMeko Hegoaldeko egileen jarrerarekin.

4.1. Grafia-iraultza: txistukariak

Nolanahi ere, euskarazko txistukariak inguruko erdaren grafia-sistema erabiliz idaztea, beharbada, konturik zailena eta eztabaidagarriena izan zen, erromantzezko grafemak euskarazko fonologia islatzeko egokitu behar baitziren. Edozein kasutan, § 2. atalean txistukariei dagozkien aldaketa batzuk jada aipatu dira, baina orain arte aipatu ez dugun igurzkari sabaiaurrekoa da desadostasun gehien sortu zuena.

4.2. Igurzkari sabaiaurrekoa

Iparraldean, frantseseko ortografia tradizioari jarraikiz (cf. § 6.1), euskarazko igurzkari sabaiaurrekoa adierazteko Leizarragak Euskara Arkaikoan zekarren <ch> erabilera tinko eta sistematikoari eutsi zitzaion (cf. Gómez & Mounole, 2018, 408. or.),

15 Hegoaldean hasperenik ez izan arren, Iparraldekoek <h> hasperena irudikatzeko erabiltzen zutela ikusita, «En esto cada provincia guarda su estilo» aholkatu zuen (Larramendi, 1729/1853, 176. or.).

baina Hegoaldean egun igurzkari sabaiaurrekoa irudikatzeko darabilgun <x> gaztelaniazko sistema grafiko zaharrear [x] ere adierazteko erabil zitekeela ikusita¹⁶, garaiko euskal idazleak ohartu ziren euskarazko [ʃ] fonemak balio grafiko bereizgarria behar zuela. Horren aurrean, euskararentzat hots hori ordezkatzeko grafia proposamenak ugari izan ziren.

Larramendik, lehenik, hori saihesteko ardura hartu zuen, eta igurzkari sabaiaurrekoa adierazteko <is> eta <(i)sy> proposatu zituen¹⁷. Dena dela, «beste arlo batzuetan ez bezala, honetan ez zuen lortu bere proposamenak aurrera ateratzea; honegatik, besteak beste, ezerk baino zalantza eta gaizkiulertu [sic] gehiago sortu eta sortzen ditu...» (Urgell, 2001, 144. or.). Aldiz, Añibarroren eta Zabalarren <sh> ideia arrakastatsu izan zen, Urgellek (2018, 608. or.) dioenez, literatur gipuzkeran bereziki: «<sh> darabilte, Ulibarriz gain, Iztuetak, Iturriagak, Arruek, eta agian besteren batek, *Donostiako eskola* delakoraino». Eragin horren isla Lardizabalen *Testamentu Zarreko Kondairan* ere ageri da, non <(i)sh> dugun, baina, horrez gain, <ś> ere bai (cf. Urgell, 1995).

Aipatutako aldaketen aitzindariak gain, ildo beretik, Kardaberatzek <f> eta <fs> zera-biltzan¹⁸, baita <ś> ere. Agirre Asteasukoak, berriz, diakritikoa <s> ondorengoko bokalari erantzen zion, eta Mendiburuk <is> eta <iss> erabiltzen zituen; Frai Bartolomek, bestalde, <is> eta <ix> grafemen alde egin zuen (cf. Urgell, 2018, 609. or.).

Antzeman daitekeenez, ez zen izan adostasunik igurzkari sabaiaurrekoa irudikatzeko, baina desadostasun horren aurrean, gure arreta osoa jaso du Mendigatxaren igurzkari sabaiaurrekoa irudikatzeko <ss> sistematikoki idazteak. Dena dela, jarraian, haren <ss> grafemaren erabileran gehiago sakonduko dugu.

4.3. Mendigatxaren <ss> igurzkari sabaiaurrekoa

Jada aurreratu dugu Mendigatxak <ss> grafemaren bidez euskarazko igurzkari sabaiaurrekoa adierazi zuela. Aitzitik, 1904ko urtarrilaren 10ean idatzitako gutunean, testuinguru fonetiko berean <ś> grafema ere agertzen da; hau da, lehen gutuna idatzi zuenetik 12. eskutitzera arte <ss> dugu bakarrik, baina 1904tik aurrera, igurzkaria irudikatzeko <ss> eta <ś> lehian dira. Hala ere, sabaiaurrekorako <ś> bigarren estrategia erabili arren, lehenak nagusi izaten jarraitzen du: <ś> 12. gutunean ageri da lehen aldiz, baina honen ostean igorritakoan, hau da, 13. testuan, bi grafemak batera

16 «Los sonidos que antes se escribían x, expresión gráfica de una sorda, y j o, ante e, i, g, representación de una sonora, confluyeron en uno, sordo, antes en el norte que en el sur, y éste llegó a tomar la pronunciación que hoy día se indica por j o, ante vocal anterior, por g: *jamás, dijo, gemido*, etcétera» (Mitxelena, 1978, 393. or.).

17 Urgellek (2001, 145. or.) Larramendiren hiztegian <x> grafemaz idatzitako *xagua* eta *xea* maileguak ere topatu ditu, baina argi uzten du «<x> ez zitzaion egokia iruditzen Larramendiri [...], ziurrenik gaztelaniazko ohituraren arabera /x/ ahoskera iradoki zezakeelako».

18 Grafema horiek <s> eta <ss> bezala ulertu behar ditugu, <f> grafema s letraren aldaera bat baita. Aurrerago ikusiko dugu <f> erabiltzeari utzi zitzaiola XVIII. mendean (ikus § 7.1). Horrez gain, Urgellek (cf. 2018, 609. or.) uste du Kardaberatzen hautua agian <ś> zela, baina moldiztegiaren erabakiz, obretan <s> altua agertuko dela.

azaltzen dira eta 21. eskutitzera arte ez da berriro <ś> agertzen –1904ko azaroaren 22an bidalitakoan, alegia–. 21eko testuan <ss> ere ageri da, baina 22. gutunetik 27.era arte Mendigatxak bakarrik <ś> idazten du eta hau da, hain zuzen ere, <ś>-ren azken agerraldia: 1905eko abenduaren 27koa, hain zuzen ere.

Ondoren bidalitakoak, aldiz, gaztelaniaz daude idatzirik (cf. § 2), eta horietan Mendigatxak Azkueri idatzi zizkion euskarazko pasarteetan <ss> bakarrik ageri da: 30. gutuneko «El Padrenuestro», «La Ave Maria», «La Salve», «El Credo», eta 32.eko eta 36.eko euskarazko ipuinetan. Horregatik guztiagatik, esan dezakegu Mendigatxa nagusiki <ss> grafemaz baliatu zela eta, geroago, helburu bererako, <ś> ere ikasi zuela. Gainera, aurrerago erakutsiko dugunez (ikus § 5.2), antzeman dugu <ś> Azkueri ikasita erabiltzen hasi zela.

Bestalde, <ss> eta <ś> grafemez gain, badira kasu bakan batzuk non igurzkaria <s> soilarekin ere idatzi duen. Dena dela, adibide horiek aurretik badute <ss> edota <ś> ikurrekin zenbait agerraldi eta horrek pentsaraz diezaguke akatsak izan litezkeela. Are gehiago, <s>-rekin idatzitako hitz guztiek badituzte adibideak <ss>-rekin ere eta, beraz, pentsa daiteke idazleak bigarren <s>-a ahazteagatik izan direla errata horiek¹⁹ –Hualde Mayoren testuetan ere antzeko egoera jaso dugu (ikus § 5.1.2)–.

Horren aurrean, uste dugu funtsezkoa dela <ss> idazketa sistematikoa kontuan hartzea, estrategia horrek, besteak beste, aurretik proposatutakoa indar eta baieztza deza-keelako: idazterakoan zalantzak izan arren, Mendigatxaren idazkeran agerikoa da euskararen fonologia eta grafia modu koherentean uztartu zirela eta horrek, halaber, haren euskararen ezagutza-maila altuari eta euskal tradizioari buruz proposatutako hipotesiak sendotzen laguntzen du (ikus § 4).

Orain arte ikusarazi dugu LEMeko idazleek euskararen hotsak idatziz egoki islatzeko zuten kezkaren aurrean, Mendigatxak bazuela Hegoaldeko oihartzuna, eta, hortaz, ez zegoela garaiko literatura-mundutik at. Hala eta guztiz ere, idazle horien artean <ss> sistematizatua inork ez izateak pentsarazten digu <ss>-ren ikerketak harago eraman gaitzakeela, frogatuz zein izan zitezkeen kallesak grafema hori erabiltzeko iturri eraginak. Halaber, ikerketak lagun dezake Mendigatxaren harreman-sarea gehiago ezagutzeko.

5. MENDIGATXAREN <SS> GRAFEMAREN JATORRIA ARAKATUAZ

Pentsa daiteke bidankoztarraren eraginak bi tamainatako harreman-sareetatik etor daitezkeela: makro-sarean, LEMeko idazleen eraginak egon litezke, baina baliteke haien oihartzuna Mendigatxari mikro-harremanen bidez iritsi izana; hau da, Mendigatxak benetan izan zituen harreman zuzenei esker; aurrez aurreko harremanei esker, alegia. Azken horiek Mendigatxak parte hartu zuen mikro-sareko eraginak izango

19 <s>-ri diakritikoa ahaztu izanagatik ere izan daitezke, baina, azpimarratu bezala, hitz horiek guztiak bes-tetan <ss>-rekin idatzi zituen, eta <ś>, gainera, gutun jakin batzuetan bakarrik erabili da.

lirateke: printzearen laguntzaile izateagatik, erronkariar idazle izateagatik, Azkuerekin harremanetan egoteagatik edota *Gaceta del Norte* egunkariaren irakurle izateagatik. Hala ere, bada azken aukera bat eta baliteke <ss> Mendigatzak berak sorturiko berrikuntza beregaina izatea.

Edozein kasutan, hurrengo ataletan mikro-sare horietako autoreek igurzkari sabaiaurrekoa nola idatzi zuten zehaztuko dugu eta, horrela, gutunetako <ss>-ren jatorria argitzen saiatuko gara.

5.1. Bonaparteren kolaboratzaileak

Mendigatxa Bonaparteren laguntzaileetako bat ere izan zela aipatu dugu (ikus § 3) eta, horregatik, atal honetan Bonaparteren kolaboratzaileek igurzkaria nola idazten zuten aztertuko dugu: printzearen mapa dialektologikoan oinarrituta, zehaztu zituen euskalki²⁰ guztietatik gutxienez idazle bat ikertu dugu²¹ eta, horren arabera, banaketa argia ikusi dugu Hegoaldeko eta Iparraldeko idazleen artean.

Hegoaldeko²² idazleek sistematikoki <ch> darabiltzate [tʃ] afrikatua irudikatzeko, baina igurzkaria adierazteko, aldiz, estrategia desberdinak jaso dira: Juan Antonio Uriartek bizkaieraz <ss> darabil sabaiaurrekoa irudikatzeko (*ellessai*²³, *issilic*, *yssiotu*, *asse*). Jose Ignacio Arana idazlea, aitzitik, bi grafemaz baliatzen da: behin <sh> eta gainerakoetan <ś> (*piścacho*, *urreraśheago*, *gaiśto*²⁴, *escaśa*, *gueiśeago*, *laiśter*, *muśal*). Claudio Otaegi gipuzkoarraren kasuan, Zegamako euskarara itzulitako testurako <ś> erabiltzen du (*escaśac*, *śuśen*, *śague*, *gaśocorrac*), baina Ordiziako euskarara itzulitako lekukotasuneko igurzkari sabaiaurrekoaren adibideak gutxi izan arren, aurretik ikusi dugun <ss> darabil (*gaissoc*, *gaisso*). Erronkaribarretik hurbileko haranetako Pedro Jose Minondo²⁵ eta Pedro Jose Samper autoreek, Mendigatzak bezala, <ss> erabiltzen dute sistematikoki.

Iparraldeko²⁶ testuei dagokienez, idazle guztiek behintzat Leizarragarengandik eka-ritako tradizioari eusten diote (cf. § 4.1.1): <ch> igurzkarirako eta <tch> afrikaturako.

20 Bonapartek mapan zehaztu zituen zortzi euskalkiez dihardugu: «el vascuence queda distribuido en tres grupos: *occidental*, *oriental* y *central*, repartidos en 8 dialectos, 25 subdialectos y 50 variedades» (de Riezu, 1958, 159. or.; Zuloaga, 2024).

21 Artikulu honen amaieran zehazturik daude aztertutako lekukotasunak (ikus § 11. eranskina).

22 Honako erremuez ari gara (printzearen mapa dialektologikoaren arabera): bizkaiera, gipuzkera, hegoaldeko goi-nafarrera, aezkera eta zaraitzuera.

23 Lehen agerraldi bakoitzeko orrialde-zenbakia eranskinean zehaztu da (ikus § 11. eranskina). Horrez gain, adibide asko badira, testuan batzuk bakarrik aipatu ditugu. Kasu guztiak eranskinean ere jasota daude.

24 Behin *gaistoa* idatzi zuen; errata izan liteke.

25 Horretarako, Nafarroako Artxiboan gordetzen den *Catecismo en dialecto de Garralda* aztertu dugu, baina Pagola eta bestek (d.g.) uste dute ez dagoela ziurtatzerik Minondo itzulpenaren egilea izan zen ala ez: «*Garraldako Dotrina* - 1en itzultzailea ere ez da ezaguna. Egile bezala Pedro José Minondo eman izan da, baina hori ziurtatzerik ez dagoela uste dugu».

26 Honako eremu dialektalez ari gara: iparraldeko goi-nafarrera, lapurtera, mendebaldeko behe-nafarrera, ekialdeko behe-nafarrera eta zuberera.

Hortaz, batasun handia antzeman da Iparraldeko Duvoisin, Dasconagerre, Iribarnegaray, Cazenave, Salaberri, Intxauspe eta Arxu autoreen artean. Horrez gain, printzeak iparraldeko goi-nafarrerako euskara aztertzeke laguntzaile zuen Etxenikek ere <ch> du; izan ere, Bonapartek «Baztango euskara –Oronoz eta Zoziaia salbu– lapurteraren barrenean zekusan»²⁷ (Camino, 2009, 500. or.).

Beraz, Hegoaldearen eta Iparraldearen arteko banaketa ikusita, argi dago Mendigatxa Hegoaldeko eraginei begira zegoela eta, zehatzago, Uriartek, Otaegik, Minondok eta Samperrek erabilitako <ss>-rekin batago egiten zuela.

5.1.1. Bonaparteren garaiko erronkarierazko egileak

Mendigatxa XIX. mendeko idazlea eta Bonaparteren laguntzailea izanik, printzearentzat idatzi ziren erronkarierazko lekukotasunen garaikoa ere bada eta, hori dela eta, oraingoan, garai bereko kallesek igurzkari sabaiaurrekoa nola idatzi zuten ikertuko dugu. Horretarako, egile ezezaguneko erronkarierazko lau dotrinak²⁸ eta Prudencio Hualde Mayok idatzitako testuak aztertuko ditugu.

D1 lekukotasuna Gómezek (1991) argitara eraman zuen eta testuaren edizio zainduaz gain, hizkuntzaren azterketa ere eskaini zuen. Gómezek (1991, 394. or.) ohartarazi du igurzkari sabaiaurrekoa irudikatzeko egile anonimoak <j> eta <s> erabili dituela, eta <ss>-k ez duela erromantzezko grafia etimologikoaren balioa galdu²⁹. D2 testuan, halaber, <ss>-k grafia etimologikoa adierazten du (*santissima*, *amabilissimo*³⁰) eta igurzkari sabaiaurrekorako, era berean, <s> soila jaso da: *gaystoac*, *meresimentu*³¹.

D3ko egileak, aldiz, <ss> du igurzkari sabaiaurrekoa irudikatzeko (*ssinesi*, *meressi*, *ssin*, *ssai*, *ssatian*, *ssaquin*...), baina batzuetan, <ss> eta <s> aldizkatzen dira hitz batzuetan: *ssinesilsines*, *gasstolgasto*, *ssinlsin*, *ssachlsachinen*, *ssaquinlsaquin*, *ssua-nen/suan*. D4 dotrinan ere badugu <ss> bi adibidetan (*vissieta*, *ssatra*), baina <s>-rekin idatzitakoak gehiago dira: *sañuchi*, *saseriric*, *sinen*, *sinechetan*, *sey*, *sausi*, *gastuer*. Nolanahi ere, azken bi lekukotasun horiei esker, argi dago <ss>-k izan ohi zuen /s/ balioa galdu (cf. § 6.1) eta sabaiaurrekoa irudikatzeko baliatzen hasi dela, sistematikoki ez bada ere.

27 Etxenikek Bonapartek eskatutako lanak Baztango euskarara itzuli zituen, eta esan bezala, baztanera lapurteraren barrenean kokaturik ageri da Baionan gorde den 1881eko maparen arabera. Horregatik, ez da harritzekoa Etxenikek ere jasotako Iparraldeko sistema grafikoa izatea, agian printzeak, Iparraldeko sistema tradizioari jarraikiz, hala agindu ziolako (cf. § 6.1).

28 Hona hemen Nafarroako Artxihoan gordetzen diren lekukotasunen erreferentzia eta testu honetarako esleitutako zenbakiak: D1: *Catecismo en dialecto de Urzainqui* (B-118); D2: *Oraciones en el dialecto de Vidángoz* (B-116); D3: *Catecismo en dialecto del Roncal* (B-110); D4: *Recopilación de diversas oraciones* (B-109).

29 Adibidetarako, jo Gómezen (1991) lanera.

30 Ez beti: *amorisismo*, *piadosismo*.

31 Kasu horietan, baliteke -i- bokalak ondoko igurzkaria sabaiaurrekoa dela adieraztea. Horregatik, <s> soila interpretatu beharrean, <is>/<si> bilkura aintzat hartu beharko genuke.

5.1.2. Hualde Mayo

Mendigatxaren bizitzaz hitz egin dugunean (ikus § 3), aipatu dugu ohikoa dela Hualde Mayoren eta Mendigatxaren arteko konparaketa, biak Bidankozen jaiotakoak eta garai-kideak izateaz gain, biek printzeari erronkarieraren azterketan lagundu ziotelako. Hala ere, Bonapartek Hualde Mayori eskatu zion egun arte erronkarieraz idatzitako testu luzeenak itzultzea, hots, San Mateoren ebanjelioa eta Asteteren katixima. Testu horiek luzeak izan arren, biak osorik aztertzea erabaki dugu³² (ikus § 11. eranskina), Hualde Mayoren eta Mendigatxaren idazkeren arteko alderaketa zehatzagoa izan dadin.

Hualde Mayoren bi itzulpenetan <ss> erabili da sabaiaurrekorako, eta Mendigatxaren gutunetan ikusi bezala (cf. § 4.3), <s> hutsegiteak direla ematen du: sabaiaurrekoa duten hitzen kasuak errepikatzen badira ere, lehen agerraldiak baino ez dira kontuan hartu. Katiximan igurzkari sabaiaurrekoa duten lehen agerraldietako 34 adibideetatik <s> bakarra aurkitu dugu (*sinetsia*). Ebanjelioan <s>-rekin bildutakoak ere oso gutxi dira, orotara, <ss>-z 69 lehen agerraldi, eta <s>-z idatzitako 10 kasuak <ss>-z ere bildu dira.

Gauzak horrela, analisi honek, Mendigatxak Hegoaldeko joeren oihartzuna izan zuela erakustez gain, gutunerian erabilitako <ss> garaiko kallesen erabilerarekin ere bat dator. Horrela, ikusi dugu D3, D4³³, Hualde Mayoren itzulpenetan eta Mendigatxaren eskutitzetan <ss> grafemak euskarak erromantzearekin partekatzen zuen /s/ balioa galdu duela (ikus § 6.1) eta euskarazko hots bat adierazteko grafema bihurtu dela.

5.2. Azkue

Hasieran azaldu dugun bezala (cf. § 2), Mendigatxaren gutuneriak beraren eta Azkue-ren arteko ia 15 urteko adiskidetasuna islatzen du, eta argi geratzen da harreman hori ez zela helburu dialektologiko hutsekoa izan: Mendigatxak Azkue miresten zuen eta hori bere eskutitzetan agerikoa da: «No me dege en olvido, no me dege deshairado. Yo no le puedo hacer otro favor que continuar con mis cortas oraciones, en pedir a Dios por su salud y bien estar. Ya save que sienpre me tiene para todo lo que pueda serle util; quedandome a sus ordenes» (1909/01/07).

Mirespen horren eraginez ere, Mendigatxak zahar-etxe batera joateko ideia burutik kendu zuen, beraren familiak Azkueri idatzi baitzion hura haiekin geldi zedin konbentzitzeko (cf. 3. oin-oharra), eta horrela izan zen: «Tan pronto como vine a casa, me entere de la suya y desde aquel momento desvanecí la idea de separarme y me decidí a vivir junto con la familia, por que estoy sumiso y obediente a sus ordenes, respetandole como si fuera mi padre propio» (1905/10/25).

32 55. oin-oharrean adierazi dugun bezala, printzearen gainerako laguntzaileekiko alderaketa orekatua izan dadin, antzeko orrialde-kopurua aztertu dugu. Hualde Mayoren kasuan, berriz, lekukotasunak osorik iker-tu nahi izan ditugu.

33 Nolanahi ere den, ezezaguneko erronkarierazko lau dotrinen arteko erlazioek azalpen gehiago merezi dute datuen datazioak zehatzagoak izan daitezen. Abian dugu Bonaparteren garaiko corpusaren edizio-lana eta testuen arteko erlazioen azterketa. Horri buruz gehiago sakonduko dugu 9. atalean.

Hizkuntzalariak Mendigatxarengan zuen eragina ikusita, pentsa daiteke hori hizkuntzan ere islatu zela, eta horren adibide, hain zuzen ere, igurzkari sabaiaurrekoaren idazketan bildu dugu: 4.3. atalean zehaztu bezala, kallesak nagusiki <ss> darabil, baina testu jakin batzuetan <ś> ageri da, 1904tik azkenengoz euskaraz idazten duen 1905eko gutunera arte. Berriki Kaltzakortak (2023) Azkuek eta bere amak elkarri idatzitako eskutitzak argitara eraman ditu, eta 1904ko urtarriletik 1906ra artekoak direla jakinda³⁴, gure arreta jaso du Kaltzakortak <ś> > <x> grafian egindako aldaketak (*onaśe* → *onaxe*). Gainera, ikusi dugu Azkuek ez zuela <ś> soilik eskutitz horietan erabili: bere *Euskal-Izkindea* gramatikan (1891, 14. or.) zehaztu zuen grafema horrek berarentzat igurzkaria islatzen zuela: «*Ch* franciarra legez». Ondorioz, ustezko kasualitate horrek erakuts diezaguke Mendigatxak erabilitako <ś> Azkuerengandik ikas zezakeela eta, horren ondorioz, erabili egin zuela berari idazterakoan. Hala ere, Mendigatxak ez du grafia hau guztiz berenganatu eta, horregatik, <ś> agertzen den zenbait gutunetan <ss> ere badugu, hori baita beraren hautua eta horretara ohitua zegoen idazlea.

5.3. *Gaceta del Norte*

Mendigatxak izan zezakeen beste erreferente bat berak aitortu zuen eskutitzetan: behin baino gehiagotan ohartarazi zuen bere irakurketa ohikoena *Gaceta del Norte* egunkaria zela, Bilbon 1901etik 1987ra arte egon zen egunkari katolikoa: «[...] toda mi vida la tengo ocupada sobre la Gaceta del Norte, sin que me separe de ella, escepto las horas de comer, dormir y las funciones de Yglesia» (1915/02/12). Badirudi Azkuek eman ziola horren berri: «Aga V. si puede que pongan bien mi nonbre en la Gazeta del Norte o en su direccion, pues no falta quien me güase con el Mendigucha» (1903/03/15).

Egunkaria lau orrialdekoa zen, orrialde bakoitza sei zutabetan banatuta zegoela. Eskaintzen ziren albisteak nagusiki tokian tokikoak ziren (cf. Lerchundi, 1985), eta gaztelaniazko irakurketa bazen ere, noizean behin, erdarazko orrien artean, euskaraz idatzitako «Atzotik ona» izeneko zutabea irakur zitekeen. Bizkaierazko irakurketak ziren horiek, eta Mendigatxak Azkueren euskara ulertzeko zailtasunak zituela jakinik (cf. § 2), pentsa dezakegu berarentzat zaila litzatekeen euskarazko zutabe hori ere ez zuela irakurtzen. Hala ere, bere irakurgai ohikoaren eragina ziurtatu nahi izan dugu.

Horretarako, egunkaria ia egunero argitaratzen zenez, Mendigatxak helarazitako gutunen hurbileko lagin batzuk bakarrik ikertu ditugu, egunkaria jaso edo irakurri duela aipatzen duenean. Eta, ez dakigunez esku artean duen alea noizkoa den, gutuna idatzi aurreko hiru asteak arakatu ditugu: 2. gutunean (1903/03/15) aipatzen du lehenik *Gaceta del Norte*, baina ez dugu data horretara hurbiltzen den alerik aurkitu; Sancho el Sabio Fundazioak gorde dituen azaroko aleak bakarrik eskuratu ahal izan ditugu³⁵; hala ere, horietan ez da euskarazko testurik. 30. gutunera arte (1911/12/22), ez du berriro erronkariarrak egunkariaz hitz egiten, eta abenduaren 15eko eta 21eko

34 Badira batzuk 1889koak, baina horiek baztertu egin ditugu, ez datozelako bat Mendigatxaren gutuneriaren kronologiarekin.

35 Hona hemen aztertutakoen datak: 1903/11/10, 1903/11/13 eta 1903/11/24 (ikus Sancho el Sabio Fundazio-k corpus digitala <https://www.euskalmemoriadigitala.eus/handle/10357/2866>).

argitalpenetan³⁶ euskarazko zutabea topatu dugu, baina igurzkari sabaiaurreko adibide bakarra <x>-z ageri da: *berealaxe*. Hurrengo eskutitzean ere bere irakurketaz dihardu –31.ean (1912/04/14)– eta hurbileko apirilaren 2ko eta 13ko³⁷ «Atzotik ona» zutabeetako sabaiaurrekoa <x>-z ere adierazten da: *berealaxe*, *pixkorr*. 33. gutunean (1915/02/12) azkenengoz *Gaceta del Norte* aipatzen bada ere, arakatutako aleetan³⁸ ez dugu euskarazko testurik aurkitu.

6. BONAPARTEREN ERAGINA <SS>-REN ERABILERAN

Orain arte egiaztatu dugu Azkueren eskutitzetan eta egunkarian ez zela <ss> grafemarik erabili eta, beraz, Mendigatxak ez zituela mikro-sare horiek baliatu <ss> erabiltzen ikasteko. Edonola ere, erronkariarren datuak kontuan hartuta, argi dago ez zela Mendigatxak sorturiko berrikuntza beregaina izan, eta Mendigatxak Hualde Mayorekin zuen loturagatik, bai printzearen laguntzaileak izateagatik, bai jaioterria partekatzeagatik, ondoriozta genezake Mendigatxak Hualde Mayoren <ss> erabilera ikasi zuela, testuinguru hurbilena baita grafia bat ikasteko. Hala ere, baliteke Hualde Mayoren testuak Mendigatxaren eskutetara iritsi ez izana eta horiek zuzenean Bonapartek jasotzea. Horregatik, Hualde Mayok Mendigatxarengan izan zuen eragina ezin frogatzeagatik, mikro-sareko gainerako eragin literarioak aztertu behar izan ditugu <ss>-ren erabilera hobeto ulertzeko.

Edozein kasutan, bidankoztarrek antzeko estrategiak erabiltzeak aurretik aipatutakoa berresten du: ez da 70 urtetik gorako gizon zahar eta ezgai bat. Herrian goi-mailako ikasketak izan ez zituen arren³⁹ –askok hizkuntzarekiko jakintasun-mailaren eragile egiten baitute alderdi hau–, ondo idazteko kezka nabarmentzekoa da, eta horren erakusgarri dugu Azkueren <ś> praktikara eraman izana: «eztakid verzaín verze nola entelegatan daitadan, erraiten daudanen gaizetarik, zeren ez baitakid eskribitan onki, eta plumak ere laster egiten daitad zomait letra isari bage» (1904/01/10).

Gainera, Erronkaribarrean ez ezik, Bonaparteren Hegoaldeko zenbait egilek hartutako hautua ere badela erakutsi dugu (ikus § 5.1). Hori dela eta, pentsa dezakegu printzea izan zela bere kolaboratzaileen artean <ss> erabilera sustatu zuena eta, horrenbestez, itzulpenak egiteko ezarritako irizpideetako bat zela, horretaz ere baliatu zirelarik Mendigatxa eta gainerako erronkariar idazleak. Bonapartek bere kolaboratzaileengan eta, hortaz, Mendigatxarengan ere izan zuen eraginean sakontzeko, printzearen erabilerak grafikoan sakonduko dugu jarraian.

36 Hona hemen aztertutakoen datak: 1911/12/01, 1911/12/15, 1911/12/18 eta 1911/12/21 (ikus Bizkaiko Foru Liburutegia <https://liburutegibiltegi.bizkaia.eus/handle/20.500.11938/82367?locale-attribute=eu>). Hemen-dik aurrera aztertutakoak oro Bizkaiko Foru Liburutegiko corpus digitaletik ateratakoak dira.

37 Hona hemen aztertutakoen datak: 1912/04/02, 1912/04/07, 1912/04/09 eta 1912/04/13.

38 Hona hemen aztertutakoen datak: 1915/01/22, 1915/01/27, 1915/02/04, 1915/02/10, 1915/11/23, 1915/11/27 eta 1915/11/30.

39 Mendigatxak berak gutunetan azaltzen du herriko egoera: «Ez al dago Nefarro guciuan iri kain lazorik nola caur ikasguiuaren gainian; kemen eztago azkurik, ez escolako ssuntan, ez eizinochian, eta ez aitetan ere» (1903/04/25).

6.1. Bonaparteren euskarazko sistema grafikoa zehazten saiatuaz

Kolaboratzaileen zenbait testutan dagoeneko ikusi dugu <ss> euskararen sistema grafikorako erabili aurretik, latinez ere erabiltzen zela, eta horrek, gerora, inguruko erromantzeetan garapen desberdina izan zuen, nahiz eta bi kasuek apikaria adierazten duten: gaztelaniaz bere testuinguru grafiko zehaztua zuen⁴⁰, baina 1763an gaztelaniazko ortografia arautzean, <ss> grafemaren erabilera erabat baztertzea proposatu zen: «[...] en la edición posterior, de 1763, de prescindir de la -ss-, que había dejado de representar hacía tiempo un fonema distinto del que representaba la -s- simple» (RAE). Frantsesean, ordea, latinezko <ss>-k oraindik txistukari apikari ozena izaten jarraitzen du, eta <ss>-k berezko erabilera duenez, erromantze honetan <ch> erabiltzen da sabaiaurrekoa irudikatzeko.

Bonapartek argi uzten du Iparraldeko tradizio trinkoari eusten diola, frantsesetik moldatutako <ch> erabili ez ezik, grafema honetan oinarritutako <tch> ere proposatzen baitu afrikaturako, 1858ko *Le verbe basque* liburuaren sarreran zehaztu bezala, non euskal ahotsak nola adieraziko dituen jasotzen duen alfabeto bat: «CH a le son de ces deux lettres dans les mots français *chacun*, *chercher*; TCH a le son du *ch* rendu plus dur par le *t*. C'est le *ch* espagnol» (Bonaparte, 1858, 12. or.). Horregatik guztiagatik, ez da harritzekoa Iparraldeko kolaboratzaileen testuetan bildutako <ch> eta <tch> grafemen erabilera sistematikoa (ikus § 5.1): «Los escritores basco-franceses suelen distinguir ambos sonidos, transcribiendo con *tch* la fuerte y con *ch* la suave; por ejemplo: *etche* “casa”, *hechur* “hueso”» (Campion, 1884, 67. or.).

Are gehiago, jakina denez, 1875ean Baionan antolatutako euskaltzaleen bileran ortografiaren batasuna eztabaidatu zen gaietako bat izan zen (Urgell, 2018, 612. or.), eta Duvoisinekin igorritako gutun batean Bonapartek grafian izan zuen eragina ikusarazten du:

Jusqu'à ce que le prince Louis-Lucien fût venu dans nos contrées, chacun écrivait le basque à sa guise. Les divergences n'étaient pourant pas considérables et il était facile de les ramener à l'unité. C'est ce dont le prince s'occupa; en grand philologue qu'il est. De là est venue l'orthographe rationnelle, que les auteurs adoptèrent aussitôt (apud Zuazo, 1988, 239. or.).

Hortaz, ondoriozta dezakegu Iparraldeko kolaboratzaileei <ch> erabiltzeko irizpidea ezarri ziela, hautu hori baitzuen tradiziozkoa eta ezaguna; aipatutakoa egiaztatzen dute printzeak Arxuri bidalitako oharrek, non <ch> eta <tch> sistema erabiltzeko agintzen dion: «4.º, emploi du digramme *ch* pour représenter le son du *ch* français et 5.º du trigramme *tch* pour le son du *ch* espagnol» (Lacombe, 1924, 202. or.).

40 «La *s* en principio de palabra o tras consonante en posición interior (*señor*, *pensar*) y la -ss- entre vocales (*passar*, *esse*, *amasse*) representaban el fonema áptico-alveolar fricativo sordo» (Lapesa, 1981, 205. or.).

Hala ere, nahiz eta frantsesez <ch> igurzkari sabaiaurrekoa izan, gaztelaniaz <ch> afrikatua da –Bonapartek Arxuri azaldu zion bezala–, eta horren erabilera sistematikoa ikusi dugu Hegoaldeko idazleen testuetan⁴¹ (cf. § 5.1). Horregatik, frantsesetik zetorren <ch> igurzkarirako estrategia ez zen egokia Hegoaldeko autoreentzako. Aitzitik, dirudienez, Bonaparte ere jabetu zen arazo horretaz eta, hori dela eta, erronkarieraz jasotako dotrinen kopietan beste aukera bat erakutsi zuen: D3 dotrinan, azaldu dugunez (ikus § 5.2), sabaiaurrekoa adierazteko <ss> ageri da. Hala ere, badirudi printzeari aukera hori ez zitzaiola ohiko gertatzen, beharbada <ss> frantsesarekin lotzen zuelako, eta horrek bere apunteetan ondorioak izango ditu: eskuz egin zuen kopian⁴² sistematikoki <ss> guztiak <ś> aldatu zituen. Era berean, printzearen zenbait oharretan⁴³ ere <ś> erabiltzen da sabaiaurrekorako. Hala ere, ez da bere lan argitaratuetan erabiliko duen aukera bakarra izango, ikusiko dugunez.

*Flexiones verbales aezkoanas, salacencas y roncalesas*⁴⁴ lekukotasunean, ordea, <ś> ez ezik, <ss> ere ageri da. Are gehiago, 1869an printzeak Mendigatxak itzulitako salmoa eta Hualde Mayoren katixima argitara eraman zituen eta bi edizioetan <ss> dugu sabaiaurreko gisa. Baina Mendigatxa kolaboratzaile ere izan zen «Ereilearen parabola» (1878) argitalpenean, aldiz, printzeak igurzkarirako <sh> baliatu zuen, afrikaturako gaztelaniazko <ch> mantentzen zuelarik. Aipatzekoa da Urgellek (2018, 612. or.) 1857ko eta 1878ko edizioen artean ortografia aldaketa nabarmenak antzeman dituela Bonapartek erabilarazi zuen ortografiaren ondorioz: <k>, <z> eta <g> orokortuak dira eta <x>-ren ordeaz, <ts> darabil.

Laburbilduz, frantsesaren eta gaztelaniaren arteko sistema desberdintasunek zaildu zuten kolaboratzaile guztientzako sistema orokor bat ezartzea. Horregatik, Bonaparte Hegoaldeari begira zegoenean ere, grafema aniztasuna erakusten du, <ss>, <ś> eta <sh> erabiltzeak ikusarazi bezala, eta horrek pentsarazten digu arazo gehiago izan zirela Hegoaldean sistema bakar bat ezartzeko gaztelaniak igurzkari sabaiaurrekoa adierazteko eredurik ez izateagatik, frantsesak <ch> duen bezala. Hori dela eta, Hegoaldeko kolaboratzaileen testuetan ere aniztasun grafikoa aurkitu dugu eta, horren ondorioz, ezin dugu aurreikusi zein sistema proposa ziezaikeen mugaren alde honetako idazleei.

41 Van Eysk (1879, 9. or.) argi uzten du Hegoaldeko idazleak euskaraz idazteko gaztelaniazko sistema grafikoan oinarritzen zirela eta Iparraldekoak, berriz, frantsesezkoan: «l'alphabet dont les Basques se servent de nos jours est celui des langues romanes; les Basques espagnols ont par conséquent l'alphabet espagnol & les Basques français l'alphabet français».

42 Nafarroako Errege Artxibo Nagusian gordetzen den *Catecismo en el dialecto de Roncal* (B-119) eskuizkribuaz ari gara.

43 Hona hemen erreferentziak: Bizkaiko Foru Artxibategiko *Vocabulario comparativo de Ochagavia e Isaba (Roncal), Léxico comparativo de los subdialectos de Aribé, Jaurrieta y Vidángoz* eta *Tableau montrant les temps du verbe basque, voix transitive et intransitive, dans les dialectes*.

44 Bizkaiko artxibategian dago eta Mendigatxa izan zuen laguntzaile lan horretarako, Donibane Lohizunera deitua izan zelarik: «Topaketa hartara joan zen Mendigatxa, eta, bere laguntzarekin, Bidankozen hitz egiten zen *uskararen* aditz-jokoa osatzea lortu zuen. Lan hau, lehen aldiz tauletan antolatu eta zutabetan Aezkoako, Zaraitzuko zein Erronkaribarko aditz-formak erakusten zituen, 1872an argitaratu zen *Etudes sur les trois dialectes basques des vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal, tels qu'ils sont parlés à Aribé, à Jaurrieta et à Vidángoz* izenburupean» (Pérez, 2018, 406. or.).

6.2. Campion

Bonaparteren ebidentziei esker, argi dago Iparraldekoek zein sistema zuten erreferentziatzen, baina, aurretik aitortu bezala, Hegoaldeko egoeraz gutxi dakigu; gehienez ere, Bonapartek, baita kolaboratzaileek ere, grafema desberdinak erabili izanak agerian uzten du Hegoaldeko euskararen grafia sistematizatzeko arazo gehiago izan zirela txistukari sabaiaurrekoa idatziz adierazteko, baina Hegoaldeko joeraz gehiago jakiteko, erabaki dugu Campionen gramatika (1884) ere aintzat hartzea: Campion Bonaparteren miresle fidela izan zen; are gehiago, bere gramatika lana Bonaparteri eskaini zion:

La admiración de Campión hacia Bonaparte es por lo tanto muy temprana y ello unido a la intensa colaboración que mantuvieron ambos vascólogos en los años anteriores a la publicación de la *Gramática* explica que la obra lingüística más importante del autor navarro vaya encabezada por la siguiente dedicatoria (Granja, 1985, 40. or.).

Gainera, Campion nafarra zen eta jakina da printzearen eremu dialektal horrekiko interesa, hori bera aitortu baitzion Bonapartek nafarrari: «Le sujet que vous avez traité m'occupe, moi aussi, dans ce moment; car les dialectes, sous-dialectes et variétés du basque usité dans la Navarre espagnole, m'ont intéressé plus, peut-être, que ceux des autres pays» (Lacombe, 1932, 193. or.). Hori guztia kontuan hartuta, pentsa dezakegu bien arteko harremanak eragina izan zezakeela Campionengan eta hori isla zezakeela bere gramatikan grafiaz diharduenean.

Campionek bazekien Iparraldeko idazleek frantseseko <ch> zerabiltela euskarazko igurzkari sabaiaurrekorako. Hala ere, Campionek <tch> erabiltzearen desadostasuna erakutsi zuen, <t> kontsonanteak balio fonetikorik ez izateagatik, eta, horregatik, Bonaparteren «ch con tilde» erabiltzea egokiagoa iruditzen zitzaioela zioen:

Sin negar las ventajas prácticas que este modo de escribir pueda traer consigo, no lo admito, porque la *t* es un mero signo diferenciador que carece de representación fónica y hay que eliminar los caracteres mudos. Si se quiere diferenciar ambos sonidos de la *ch*, es preferible adoptar cualquier otro signo; el del Principe Bonaparte, *ch* con tilde (Campion, 1884, 67. or.).

Pentsa dezakegu Bonaparteren testuetan jasotako <ś> grafemaz ari dela, ez baitugu <ch> diakritikoarekin adibiderik topatu, ezta egitasmo honetan behatu ditugun laguntzaileen testuetan ere. Hala eta guztiz ere, kontziente da <ch> igurzkaria irudikatzekeo grafema bakarra ez dela: «El sonido *s* es triple; [...] otro propio de los dialectos basco-franceses, más sibilante aún que la *s* basca de España, y que frisa casi con la *ch* francesa» (Campion, 1884, 67. or.). <s> grafema horren adibide, besteak beste, aztertutako Erronkaribarko dotrinen adibideetan bildu dugu (cf. § 5.2).

Horrez gain, <ch> eta <s> aipatu ez ezik, <ss> hautua ere gogora ekarri zuen:

El bascuence es refractario á la reiteración de consonantes. Ortográficamente se observa en muchos casos; el sonido de la *t'* ha sido representado por algunos

escritores como el signo *tt*; el sonido de la *s* basco-francesa, como el signo *ss*; la *ñ*, con *nn* y así otros. Pero estas reiteraciones carecen en absoluto de valor fónico (Campion, 1884, 78. or.).

Azpimarratzekoa da *Orrega* (1878/1879) argitalpeneko erronkarierazko⁴⁵ aldaeran igurzkari sabaiaurrekorako Campionek <ss> erabili zuela, baita urtebete berandua-goko berrargitalpenean ere. Gainera, edizio inprimatuan bertan azaldu zuen <ss>-ren balio fonetikoa sabaiaurrekoarena zela: «Las dos *ss* se pronuncian como la *ch* francesa» (Campion, 1878, 74. or.). Aitzitik, bere gramatikarako bakarrik <ch>-z baliatu zen, Erronkaribarko txistukarien inguruan hitz egin zuenean erakutsi bezala:

En Roncal menudea la palatal *ch*. En los dialectos basco-franceses y en la mayor parte de los nabarros que no se derivan del guipuzcoano, la *s* es una sibilante estridente y prolongada, que se aproxima mucho, cuando no se confunde con ella, a la *ch* francesa. Queda sentado que la *s*, *ts*, *z*, *tz* y *ch* representan sonidos que tienen una gran movilidad aun dentro del mismo dialecto o variedad (Campion, 1884, 111. or.).

Hala ere, esan dugu erronkarierazko *Orreaga* argitalpenerako <ss> erabili zuela eta horrek antza hartzen dio Bonaparteren edizioetan gertatutakoari, hau da, zenbait estrategia ezagutu arren, badirudi <ss> erabiltzea egokiago iruditu zitzaiola Erronkaribarreko testuko txistukari sabaiaurrekoa adierazteko, argitalpen horretarako bakarrik bada ere. Horrez gain, jasotakoak ere erakutsi lezake Campionek ez zuela <ss>-ren erabilera baztertzen, eta gramatika-lanean bildutako estrategia aukeren aniztasunak bat egiten duela Bonaparte eta honen laguntzaileen lekukotasunetan ikusitakoarekin (cf. § 5.1). Hau da, Iparraldean ez bezala, Hegoaldekoen artean zailagoa izan zen igurzkari sabaiaurrekoaren transkribapena zehaztea eta estrategia bakar baten erabilera finkatzea.

Hortaz, Bonaparteren, Campionen eta Hegoaldeko laguntzaileen arteko korrelazioak erakutsi du Hegoaldeko egoeraz dihardugunean kontuan izan behar dugula euren erreferentziazko sistema grafikoa gaztelaniarena dela, eta, antza denez, zailagoa izan zen haien arteko adostasuna, LEMeko egileak ere igurzkaria transkribatzeko ados jarri ez ziren bezalaxe (cf. § 4.2).

Nolanahi ere den, orain arte aztertutakoak frogatu du <ss> ez zela Mendigatxak soilik erabilitako hautua izan eta, horrekin batera, badirudi Bonaparteri zor ez zaion zerbait dela, eta horrek pentsarazten digu printzeak Euskal Herria ezagutu baino lehenagokoa dela. Hori dela eta, <ss>-ren jatorria zein den zehazten saiatzeko, jarraian Mendigatxaren eraginetatik aldenduko gara, gutuneriaren datetatik hurbil ez dauden lekukotasunak aztertuz, <ss> LEM garaiazen hasieran ere erabilia izan ote zen ziurtatzeko, gerora, Mendigatxak mantenduko zuena 1916ko azken gutunera arte.

45 Ez dago aezkerazko eta zaraitzuerazko aldaeretako igurzkari sabaiaurrekoa erabiltzeko testuingururik eta, beraz, ezin da jakin eremu horietan ere <ss>-ren erabilera mantentzen den.

7. <SS>-REN ERABILERAREN AITZINDARIA AURKITU NAHIAN

Mendigatxaren garaia datetatik hurbil zehaztu dugu euskararentzako sistema grafiko beregain bat sortzeko kezka XVIII. mendean hasia zela. Hala, aipatu dugu euskarazko igurzkari sabaiaurrekorako Kardaberatzek (1761) bazuela <fs> konbinaketa (ikus § 4), baina <ss>-ren erabilera sistematikoa, Mendigatxaren testuetan ez ezik, Bonaparteren Hegoaldeko zenbait laguntzailereren testuetan baino ez dugula aurkitu.

Kardaberatz <ss> erabilerari bide eman zion lehen idazleetako bat izan ote zen jakiteko, Mendigatxaren eragin literarioetatik aldenduaz, beste Hegoaldeko egile batzuk aztertzea erabaki dugu, gure asmoa Mendigatxaren hautua joera zabalago baten parte izan ote zen jakitea baita, eta zein neurritan izan zitekeen Bonaparteren eraginetik at sortua. Horretarako, LEM aurretik <ss> lekukotzen den ikusteko, Elizalderen *Apezendaco doctrina christiana uscaras* (1735) aztertuko dugu, eta Kardaberatz idazlearen ostean beste autore batzuek <ss> ere erabili zutela egiaztatzeko, Astarloa (1803) eta Mogelen lanak izango ditugu hizpide.

Jakina, Hegoaldeko beste autore batzuk ere azter zitezkeen, baita lan gehiago arakatu ere, baina gure hautaketa lehen hurbilketa honetarako lagin adierazgarri gisa ulertu behar da, gure asmoa ez baita <ss> grafemaren erabilera duten idazle guztiak topatzea. Hortaz, argi utzi nahi dugu hau lehen hurbilketa bat dela, <ss> grafemaren erabileraren antzintasuna erakutsi eta erabilera hori printzearen eraginetik harago egon zitekeela frogatzeko. Beste era batean esanda, erakutsi nahi dugu <ss> hautua ez dela orain arte ikertu ditugun mikro-sareetako joera bat, eta erabili ere izan zitekeela erronkariarraren garaitik at. Ondorioz, gure asmoa Hegoaldeko <ss> grafemaren erabilera tradizionala egiaztatzea da eta, horretarako, aipatutako urte desberdinetako hiru testu horiek aztertuko ditugu jarraian.

7.1. Elizalde

Elizaldek *Apezendaco doctrina christiana uscaras* (1735) testuan <ss> erabili beharrean, «s luzea» deritzon <f> grafema konbinatuz lau kasu bildu ditugu: *gaiſtoetatic* hitzean <f> soila dugu igurzkari sabaiaurrekoa izan daitekeen testuinguruan. <ff> bikoitzak, halaber, igurzkari sabaiaurrekoaren ahoskera adierazten du: *onlaſſe*, *alafſe*, *iſſil*, *iſſpiluan*, *chuffencen*. Hala ere, grafema bikoitz hori grafia etimologikoaren isla ere bada, hala nola *confeſſaceco*, *effencias* hitzetan. Horrez gain, zenbait kasutan <f> <s> soilarekin konbinatzen da grafia etimologiko erromantzeari ere eutsiz: *clementiſſima*, *neceſſidade*, *pafſionetan*, *confeſſioan*.

Esan beharra dago <f> ez erabiltzeko aldaketa Elizalderen edizio-inprimatuaren ondoren gertatu zela eta, beraz, <ss> beharrean <ff> biltzea geroago gertatu zen aldatari zor lekiok: «In Madrid, from the early 1760s, some printers dropped the long s from their books, by the 1770s this was common practice, and at this same period some Spanish typefounders experimented with proto-didone types» (Nash, 2001, 6. or.). Ondorioz, Kardaberatzen <fs> konbinaketa bezala, esan daiteke autore hau ere <ss> bikoitzaz baliatu zela igurzkari sabaiaurrekorako.

7.2. Printzearen kolaboratzaileen harreman-saretik aldenduaz

Aurreko atalari esker, ohartu gara <ss> LEMa baino lehenago dokumentatzen dela, eta ikusi dugunez grafema horren erabilera areagotu egiten dela Bonaparteren kolaboratzaileen testuetan, estrategia horretaz baliatu baitziren Uriarte, Otaegi, Minondo, Samper, D3 eta D4 egile anonimoak, Hualde Mayo eta Mendigatxa, atal honetan, Bonaparterengandik kanpo gelditu ziren bi egileen joera ere ikertu nahi dugu, Mogel eta Astarloa idazleena, printzeak Euskal Herria ezagutu zuenerako, idazleak zendu baitziren. Azterketa honek, halaber, erakuts diezaguke Bonapartek bere egitekoan aurreko lanak baliagarri izan zekizkiokeela eta, beraz, gainerako laguntzaileen lana antolatzeko eragina izan zutela.

7.2.1. Mogel

Mogelen *Cristau eracastle euscalduna*⁴⁶ eskuizkribua aztertu dugu eta horri esker ohartu gara idazle honen <ss>-k ere igurzkari sabaiaurrekoa adierazten duela: *issur-tzen, issiltzen, issillac, gaissoac*. Mogekek oraindik arakatutako lekukotasunetan ikusi ez dugun <šš> darabil: *urašše, gaiššo, gaiššotu*. Aipatzekoa da *gaixo* hitza *s* soilarekin ere idatzi duela: *gaisotzen*. Salbuespen hori sistematikoa da *Confesino ona* lekukotasunetan⁴⁷: *gaisotuten, gaisto, gaisuaren, gizagaiso, gaiso, gaisorik, gaisoari*. Kasu horietan, gerta daiteke *i-* bokalak ondoko frikaria igurzkari sabaiaurrekoa dela adierazi nahi izatea eta, beraz, <s> beharrean, <is> bilkura dugu horietan (ikus 31. oin-oharra). Bizkaierazko testuan, *elessa (elessetan, elessan, elessaco)* kasua dugu <ss> grafemarekin, baina aurretik *i-* dagoenean, Mogekek *Eleisaac* idazten du. Lekukotasun horretan *issil* eta *issillagua* kasuak ere jaso ditugu. *Peru Abarcán* (1881), halaber, <ss>-ren adibideak topatu ditugu: *issillic, Elessacuacaz, gaisua, issilla, issiltasunaz*. Hala ere, <is> bilkurakoak dira *gaisoric, gaisuari, isillic* eta *Elesiac* adibideak.

Hortaz, <ss> grafemaren erabilera ez dugu trinko Mogelen testuetan, baina jakina da Mogel Bonaparteren zuzeneko laguntzailea izan ez arren, «[...] gipuzkeraz idatzi zuen *Cristau eracastle euscalduna* liburua printzearen eskutara iritsi zen eta, horregatik bada, aurkitzen da *Ondarean* gaur egun eta, dudarik gabe, printzeari hagitz baliagarria izango zitzaion» (Pagola, d.g.). Joakin Lizarraga, halaber, ez zen Bonaparteren laguntzailea izan «aspalditxotik hila baitzen. Halere, laguntza handikoa izan zuen haren lana, printzeak haren eskuizkribuak erabili baitzituen [...]» (Pagola, d.g.). Horregatik, hura ere aztertzea erabaki dugu eta, horretarako, Nafarroako Foru

46 Bizkaiko Foru Liburutegian gorde da honako izenburu honekin: *Cristau eracastle euscalduna [Manuscrito]* / *ateratzen du arguira Guiputz itzqueran cristau euscaldunen oneraco Don Juan Antonio Moguel ta Urquiza Marquinaco Cura edo Animazaiac*.

47 Gipuzkoako Foru Liburutegian gorde diren testu hauetaz dihardugu: zerrendatutako lehenengo adibideak *Confesino ona edo ceimbat gauzac lagundu biar deutseen confesinuari ondo eguiña izateco / atera ebana arguira Bizcaico eusque-ran Juan Antonio Moguel ta Urquizakoak dira, eta aurreragoko Peru Abarka lanaren kasuak *El doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte ó Diálogos entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan / obra escrita por Juan Antonio de Moguel*.*


Liburutegian gorde den *Catecismo* aztertu dugu: ikusi dugu Lizarragaren testuko <ss> grafia erromantzeari dagokiola (*passio*, *clementissima*, *promessac*, *novissimoac*, *confessacen*, *passatu*); beraz, <ss>-k beste balio bat duelarik, <chs> erabiltzen du igurzkari sabaiaurrekorako (*gaichstoen*, *aichstean*, *chsaquitzean*, *chsaten*).

Aipatutakoak frogatzen du Lizarragak <chs> erabiltzeagatik, Bonapartek bien lanak baliatu bazituen ere, Mogelengandik bakarrik <ss> erabiltzen ikas zezakeela eta, gerora, berak praktikara eraman zezakeela.

7.2.2. Astarloa

Astarloaren *Apología* lana aintzat hartu dugu: <ss>-k gaztelanian bokal arten duen balio grafiko hutsa mantentzen du, eta horren adibide dira *ichasso*, *ichassua*, *sassicume*, *-tassun*, *gosse*, *bassaurdia*, *icassi*, *gurassuac* hitzak. Gainera, Astarloak aipatu zuen latinak eta erromantzeek bazituztela s bikoitzarekin idatzitako izenondoak, «esto es, con una letra doble, y con mucha analogía» (Astarloa, 1803, 108. or.), baina autoreak zioen latinezko <ss>-k, gerora, gaztelaniaz <s> bilakaera izan zuela. Halaber, argi erakutsi zuen [ʃ] eta [tʃ] hotsak bereizten zituela, gainerako hizkuntzek euskararen fonema horiek ordezkatzeko alfabeto egokiak ez zituztela egiaztatzeko, honakoa argudiatzen baitzuen: «Efectivamente, ninguna de las lenguas que pudieron conocer los Bascongados, ni todas juntas, tenían en sus alfabetos las letras del nuestro. El alfabeto de la Hebrea no tiene la *ch*, *ll*, *ñ*: tampoco tiene la *x*, esto es, el sonido de la *ch* Francesa, *sh* Inglesa, *sch* Alemana» (Astarloa, 1803, 49. or.). Astarloak, hortaz, <x> eta <ch> grafemen arteko bereizketa erabili zuen eta horren adibide, euskarazko *Elexa/Elexia* eta *Echia* kasuak bildu ditugu (cf. Astarloa, 1803, 81. or.).

Hortaz, Astarloa <x> grafemaz baliatu zen igurzkaria adierazteko eta azpimarraztekoa da Bonaparterentzat, berriz, <x> apikaria zela, Arxuri zehaztu zion moduan: «6.º, *ts* au lieu de *x*» (Lacombe, 1924, 202. or.), eta geroago <ts> erabiltzeko proposatu bazuen ere (ikus § 6.1), Nafarroako Artxiboan gordetzen den N-126 eskuizkribuaren⁴⁸ zuzenketetan, <ts> guztiak <x> aldatzen ditu, baina horrek argi uzten du printzearentzat <x> bakarrik apikaria izan zitekeela:



1. irudia. N-126 eskuizkribuko <ts> > <x> aldaketaren adibide bat.

⁴⁸ Eskuizkribu horrek Bonaparteren honako argitalpenaren lapurtera eta zubereraren atalekin lotura du: “*Dialogues basques*”: *Guipuscoans, Bizcaïens: par Don A.P. Iturriaga. Le P.J.A. de Uriarte. Labourdins. Souletins: par M. le Cap. J. Duvoisin. M. l'abbé Inchauspe. Accompagnés de deux traductions espagnole et française* (1857).

Horrek guztiak erakutsi du Astarloa orain arte aipatutako idazleen estrategietatik at kokatzen dela, eta badirudi <ss> lotuago dagoela Bonaparte eta bere inguruko egitasmoekin edo, behintzat, ziur esan daiteke <ss> erabilera ugaria dela Hegoaldeko itzulpenetan eta, gainera, sistematikoa dela Nafarroako ekialdeko haranetan. Horrez gain, pentsa dezakegu gaztelaniaren grafiak euskararen txistukari sabaiaurrekoaren islatzeko zuen ezintasunaren aurrean, Bonapartek Hegoaldeko beste autore batzuegandik ikasi zituela arazoa konpontzeko pil-pilean zeuden aukera grafiko ezberdinak, Mendigatxak <ś> Azkuerengandik ikasi zuen bezala, eta horren adibide Mogelen <ss> izan liteke. Nolanahi ere den, printzearen igurzkaria adierazteko grafemen aniztasunaren aurrean, azpimarratzekoa da zenbait autoreren <ss> idazketa sistematikoa, batez ere Nafarroako ekialdeko ibarretako idazleena eta bereziki Mendigatxaren gutunerian ikusitakoa, LEM garaiaaren ostean oraindik <ss>-z lekukotzen delako.

8. ONDORIOAK

Mendigatxak Azkueri bidalitako 36 gutunak aztertzean, arreta jarri dugu haren idazketa-ereduan, eta nabarmendu dugu euskaraz ondo idazteko zuen kezka. Ardura hori XVIII. mendeko idazleek ere partekatzen zuten, baina ikusi dugu Mendigatxak <ss> euskarazko igurzkari sabaiaurrekorako sistematikoki baliatu bazuen ere, bakarrik Kardaberatzek zuela horren erabilpena. Horren aurrean, Mendigatxaren irakurketetz eta mikro-sareez gorago ikasi dugunak <ss> grafemaren jatorrian sakontzeko aukera eman digu, eta analisi horren arabera, ondorio hauek atera ditugu:

- 8.2. Mendigatxaren ibilbideaz hitz egitean, printzearekin izandako lankidetza azpimarratu dugu, eta horrek Bonaparteren gainerako laguntzaileen testuak aztertzeran eraman gaitu. Horri esker, zehaztu dugu Iparraldeko eta Hegoaldeko laguntzaileen ohitura grafikoak ez zirela berberak txistukari frikari sabaiaurrekoari dagokionez. Iparraldean, <ch> igurzkarirako eta <tch> afrikaturako erabiltzen ziren eta bereizketa horrek, besteak beste, erakutsi du Iparraldeko laguntzaileen sistema grafikoa trinkoagoa zela. Hegoaldean, ordea, aniztasun grafiko handiagoa lekukotu dugu eta, horren aurrean, ondorioztatu dugu gaztelaniazko ortografian igurzkaria irudikatzeko eredurik ez izateari zor zaiola; hots, Hegoaldeko idazleek ez zuten gaztelaniatik har zezaketen grafemarik euskarazko fonema ordezkia zezakeena.
- 8.3. Edonola ere, erakutsi dugu <ss> grafema ez zela Mendigatxaren hautu isolatua izan. Izan ere, Hegoaldeko Bonaparteren zenbait laguntzailek ere <ss>-z adierazi zuten euskarazko igurzkari sabaiaurrekoa. Hain zuzen ere, sistematikoki baliatu zuten Uriartek, Minondok, Samperek eta Hualde Mayok.
- 8.4. Argi utzi dugu Bonaparte ezin zitekeela izan estrategia horren sortzailea, Elizaldek ere 1735ean <ss> erabili baitzuen sabaiaurrekoa irudikatzeko, eta horrek, halaber, agerian utzi du <ss> grafema LEM baino lehenagokoa dela. Horren bestez, lekukotasunen arteko kronologia alderaketak <ss>-ren antzintasuna iradoki du.

- 8.5. Bonapartek <ss> asmatu ez arren, ikusi dugu printzearen egitasmoetan <ss> hedatuta zegoela; zehazki, bizkaitar eta nafar ekialdeko idazleek dute, baina Nafarroako ekialdeko ibarretan <ss>-ren erabilera indartsuagoa da⁴⁹. Azpimarraztekoa da, halaber, euskarazko igurzkaria irudikatzeko <ss> grafema haurturik zaharrentzat jotzen badugu (Elizalde lekuko), XIX. mende bukaera arte sistematiko jarraitu zuela eremu horretan. Horretan printzeak eragina izan zezakeen, izan ere, Mogel bezalako idazleek erabiltzen zuten baliabidea izanik, Bonapartek argitaratutako obretan bere horretan ekar zezakeen grafia hura, moldatu gabe, eta berak proposa zezakeela <ss> ekialdeko haranetako itzulpenetarako erabiltzeko, irizpide hori berandu sartu zelarik Nafarroako bailaretan bere bigarren bidaia egin arte ez baitzuen eremu dialektal hori ezagutu. Aitzitik, eremuko itzultzaileek eurek harturiko erabakia izan zitekeen <ss> erabiltzea haien hizkeren hotsa adierazteko, eta beraz, Bonapartek gerora Hegoaldeko kolaboratzaileengandik <ss> aukera ikas zezakeen.
- 8.6. Nabarmendu beharrekoa da <ss> erabilera bi eremutan: mendebaldean, Mogel eta Uriarteren testuetan, eta Nafarroako testuetan, Elizalde, baina bereziki ekialde haranetako laguntzaile eta Mendigatxaren gutunerian ikusitako erabilera sistematikoa. Grafia kontuei dagokienez, eztabaidagarria izan daiteke <ss> arkaismotzat jotzea, izan ere, gertaera grafikoetan fenomenoak zehaztea konplexuagoa suerta daitekeelako. Hala ere, gogorarazi nahi izan dugu elkar ukitzen ez duten bi eremutan erabilera sistematikoa jaso dugula.
- 8.7. Erronkarierazko egileen artean, berritzaile bakarra Mendigatxa izan zen. Azkueri esker, <ss> ez ezik, gutunetan <ś> ere erabiltzen hasi zen, eta horrek pentsarazten digu gainerako autoreek <ss> hautua bakarrik ezagutzen zutela. Beraz, bidankoztarrak beste grafema bat ikasteko aukera izan zuen eta, lekeitiarrarekiko adiskidetasunari esker, kallesak argi erakutsi du bestelako testuen aurrean grafia berriak ikasteko gogoia zuela.

9. ETORKIZUNERAKO

<ss> grafemaren analisiak Hegoaldeko egileen arteko hainbat joera agerian utzi ditu, baina ezin izan dugu horiek guztiak lotzen dituen azalpen bakarra lortu. Horren falta, euskararen ikerketan ohikoa den bezala, ikerketen faltaren ondorio da. Horregatik, <ss> hautuaren bilakaera zehazteko, ezinbestekoa litzateke Bonapartek Hegoaldean itzulpenak egiteko ezarri zituen irizpideei buruz informazio gehiago eskuratzea. Lekukotasun berri gehiago ezean, ikerketa zehatzagoak eta galdera berriak behar ditugu.

49 Ez hori bakarrik, berriki Santaziliak eta Urrizolak (2024) ezagutzera eman dute Udaben eta Donezteben XIX. mendean kantatu ziren bertso-sorta bana, eta testu horietan ere <ss> ikusi dugu: Udabeko bertso sortan (1831), 1. eta 3. lekukoen testuetan *sobrasse* ('soberaxe') dugu (Santazilia & Urrizola, 2024, 9. or.), eta Doneztebekoan (1826) *issillic* (Santazilia & Urrizola, 2024, 19. or.).

Horrez gain, aproposa litzateke Mendigatxaren eragin zuzenei buruz gehiago jakitea; izan ere, esan dugu Hualde Mayorengandik <ss> hautua ezagun zezakeela, testuinguru hurbilena baitzuen grafia hori ikasteko, baina aitortu dugu bien arteko harremana ziurtatzeko lekukotasunen gabezia, eta horrek, halaber, behartu gaitu Mendigatxaren eredua beste iturri batzuetan bilatzera Bidankozeko hautu isolatua ez zela frogatzeko.

Bestalde, oraindik egileak aztertzeke dituzten erronkarierazko lau dotrinen arteko erlazioak zehaztea ezinbestekoa dugu. D3 eta D4 testuen egilea bera balitz, orduan <ss>-rekin ikusi dugun antzekotasun grafikoa azal genezake. Gainera, bi horiek D1 eta D2ren ondorengo testu idatziak badira, horrek azalduko luke zergatik D1 eta D2 dotrinek ez duten <ss>: agian hautu hori ezezaguna zutelako eta gerora <ss> ekarri zelako Erronkaribarrera. Hori dela eta, erronkarierazko lekukotasun horien datatze- eta egiletza-proposamenek lagun diezagukete bilarako <ss> erabileran sakontzen.

Hala, etorkizunerako erronka dugu erronkarierazko testuen edizio-lanerako ezinbestekoak izan daitezkeen beste ezaugarri filologiko batzuk argitzen saiatzea, eta Erronkaribarrera irits zitezkeen literatur eraginetan sakontzea.

10. ERREFERENTZIAK

- Abbadie, A. (1836). Prolegomènes. In A. Abbadie & J. Augustin Chaho, *Études grammaticales sur la langue euskarienne* (1.-50. or.). Arthus Bertrand.
- Angos, A. (2007). *Erronkaria (III) – Testuak*. Hiria.
- Astarloa, P.P. (1803). *Apología de la lengua bascongada o ensayo crítico filosófico de su perfección y antigüedad sobre todas las que se conocen*. Gerónimo Ortega.
- Azkue, R.M. (1891). *Euskal-Izkindea: gramática euskera*. Astuy.
- Azkue, R.M. (1931). Particularidades del dialecto roncales. *Euskera*, 12, 207-406. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/53156.pdf>.
- Azkue, R.M. (1935 – 1947). *Euskalerriaren yakintza: literatura popular del País Vasco*. Espasa Calpe.
- Azkue, R.M. (1984). *Diccionario vasco – español – francés*. Euskaltzaindia. (Jatorrizko obra 1905-1906an argitaratua)
- Bonaparte, L.-L. (1857). Dialogues basques: Guipuscoans, Bizcaiens: par Don A. P. Iturriaga. Le P. J. A. de Uriarte. Labourdins. Souletins: par M. le Cap. J. Duvoisin. M. l'abbé Inchauspe. Accompagnés de deux traductions espagnole et française [eskuizkribua].
- Bonaparte, L.-L. (1858). *Le verbe basque par l'abbé Inchauspe; ouvrage publié par le prince Louis-Lucien Bonaparte*. Benjamin Duprat.
- Bonaparte, L.-L. (1869). *El salmo quincuagésimo, traducido al vascuence aezcoano, salacenco y roncalés, de la versión castellana del Padre Felipe Scio, por Don Martin Elizondo de Aribé, Don Pedro José Samper Abad de Jaurrieta y Don Mariano Mendigacha de Vidángoz*. Strangeways and Walden.

- Bonaparte, L.-L. (1872). *Études sur les trois dialectes basques des vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal, tels qu'ils sont parlés à Aribé, à Jaurrieta et à Vidangoz*. Strangeways and Walden.
- Bonaparte, L.-L. (1878). *La parábola del Sembrador traducida a los ocho dialectos del vascuence y a cuatro de sus subdialectos*. Strangeways and Walden.
- Camino, I. (2009). *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Elkar.
- Campion, A. (1879/1878). *Orreaga balada escrita en el dialecto guipuzcoano por Don Arturo Campion. Acompañado de versiones a los dialectos bizcaino, labortano y suletino y de diez y ocho variedades dialectales de la region bascongada de Nabbarra desde Olazagutia hasta Roncal*. Joaquín Lorda.
- Campion, A. (1884). *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskera*. E. López.
- Darrigol, J.-P. (1827). *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque, par un ecclésiastique du diocèse de Bayonne*. Duhart-Fauvet.
- Elizalde, F. (1735). *Apezendaco dotrina christiana uscaras*. Alfonso Burgueteren alarguna.
- Estornés Lasa, J. (1984). Mendigatxak Azkueri kartak, 1902-1916. Eta Erronkariko uskaratik utzulpen ta goarpenak. *FLV*, 43, 55-127. <https://doi.org/10.35462/flv43.2>
- Gómez, R. (1991). Erronkarierazko dotrina argitaragabe bat: edizioa eta azterketa. In J.A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum (ASJUren Gehigarriak 14)* (375.-426. or.). Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Gómez, R. & Mounole, C. (2018). Euskara zahar eta klasikoa. In J. Gorrochategui, I. Igartua & J.A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia* (469.-541. or.). Eusko Jaurlaritza.
- Gonzalez Echegaray, C. & Arana Martija, J.A. (1989). *L.-L. Bonaparte: eskuizkribuak-argitarapenak. Manuscritos-publicaciones*. Euskaltzaindia.
- Granja, J. (1985). La gramática de Arturo Campion y Luis Luciano Bonaparte. *Euskera*, 30(1), 31-49.
- Irigoién, A. (1957). Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkue. *Euskera*, 2, 119-169.
- Kaltzakorta, J. (2023). Azkueren gutundegia: 1904-1906. urteetan atzerritik ama-arrebei idatzitako gutunak. *Euskera*, 68(1), 31-110. <https://doi.org/10.59866/eia.v1i68.254>
- Kardaberatz, A. (1761). *Aita S. Ignacio Loyolacoaren egercicioac beren consideracio ta afectoaquin*. Antonio Castilla.
- Lacombe, G. (1924). Quelques mots sur les versions basques du Cantique des Cantiques. *RIEV*, 15(2), 197-208.
- Lacombe, G. (1932). Lettres du Prince Louis-Lucien Bonaparte à Don Arturo Campión. *RIEV*, 23(1), 192-198.
- Lakarra, J.A. (1985). Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko sermoia (1737). *ASJU*, 19(1), 235-281. <https://doi.org/10.1387/asju.7685>
- Lapesa, R. (1981). *Historia de la lengua española*. Gredos.
- Larramendi, M. (1745). *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*. Bartolomé Riesgo y Montero.

- Larramendi, M. (1853). *El imposible vencido, arte de la lengua bascongada*. Pío Zua-
zua. (Jatorrizko obra 1729an argitaratua)
- Larrañaga, X. (1997). Mendigachak Azkueri igorri eskutitzak: aditza. *FLV*, 75, 283-
316. <https://doi.org/10.35462/flv75.8>
- Lekaroz, G. (2023). *Ai, ene onetsia*. Itzagaondoa Ibarra Elkartea.
- Lerchundi, A. (1985). *Gaceta del Norte sus 83 años vida*. UPV/EHU.
- Mitxelena, K. (1978). Para una historia de la ortografía vasca. *FLV*, 391-395. <https://doi.org/10.35462/flv33.1>
- Mogel, J.A. (1881). *El doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte o diálogos entre un rustico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan. Obra escrita por el presbítero D. Juan Antonio de Moguel*. Julián de Elizalde.
- Nash, P.W. (2001). The abandoning of the long s in Britain in 1880. *Journal of the Printing Historical Society*, 3, 3-19. <https://doi.org/10.17613/fcj1-eh66>
- Pagola, R.M. (d.g.) (arg.). *Bonaparte ondareko eskuizkribuak*. Deustuko Unibertsitateak.
- Pérez, G. (2018). Mariano Mendigatxa Ornat eta Erronkaribarko uskara. *Euskera*, 2, 393-417.
- Pérez, G. & Angos, A. (2020). *Mariano Mendigatxa & R. M^a Azkue: correspondencia / eskutitzak 1902-1916*. Nafarroako Gobernua.
- Real Academia de la Lengua Española. (1726). *Diccionario de Autoridades*.
- Real Academia de la Lengua Española. (2010). *Ortografía de la lengua española*.
- de Riezu, J. (1958). El príncipe Luis Luciano Bonaparte. *Príncipe de Viana*, 70-71, 149-164.
- Rojo, L. (2023). [n-/l- + herskari] taldeen bilakabide diakronikoa eta erronkarieraren leku-
kotasuna: irudia(k) fintzen. *ASJU*, 56(2), 143-167. <https://doi.org/10.1387/asju.24107>
- Santazilia, E. & Urrizola, R. (2024). Bi euskal bertso-sorta XIX. mendeko Nafarroan: Udabe
eta Doneztebe. *RIEV*, 69(1), 1-36. <http://doi.org/10.61879/riev691zkia202406>
- Urgell, B. (1995). *Francisco Ignacio Lardizabal: Testamentu Zarreko kondaira*. Kri-
seilu.
- Urgell, B. (2001). Euskal formen aurkezpena Larramendiren hiztegian. *ASJU*, 35(1),
107-183. <https://doi.org/10.1387/asju.8819>
- Urgell, B. (2018). Lehen euskara modernoa. In J. Gorrochategui, I. Igartua & J.A. Laka-
rra (arg.), *Euskararen historia* (543.-657. or.). Eusko Jaurlaritza.
- Van Eys, W.J. (1879). *Grammaire comparée des dialectes basques*. Maisonneuve.
- Zuazo, K. (1988). *Euskararen batasuna*. Euskaltzaindia.
- Zuloaga, E. (2024). Linguistic documentation and Basque dialectology in the 19th
century: The work of L-L. Bonaparte. *Nineteenth-Century Prose*, 51,
37-78.

11. ERANSKINA

11.1. Aztertutako Bonaparteren laguntzaileen lanen erreferentziak eta horietan bildutako igurzkari sabaiaurreko kasuak⁵⁰

1. J.A. Uriarte

- 1.1. «San Juan Apostolubaren Apokalipsis edo Aguertueria» (BDV⁵¹)
 <ss>: *Elessai* (1)⁵², *elessac* (2), *Yssiotu* (6), *asse* (10), *assiac* (10), *issilic* (11).

2. J.I. Arana⁵³

- 2.1. «San Ignacio Loyolacoaren bicitza laburtua: euskaraz eta gaztelaniaz» (BDG⁵⁴)
 <ś>: *piścacho* (1), *gaišto* (6), *escaśa* (8), *gueišeago* (13), *irriškatu* (13), *laišter* (14), *piścabat* (19), *muśal* (19), *išegui* (20), *gaiśoi* (22), *maiśu* (26), *gaišotokian* (29), *gośo-gośo* (29), *śamalda* (29), *gaišoteguiyan* (30), *Guerośeago* (30).
 <śh>: *urreraśheago* (4).

3. C. Otaegi:

- 3.1. «Doctrina cristiana Villafrancaco escuera» (BDG)
 <ss>: *gaissoc* (24), *gaisso* (34).
- 3.2. «Eguren jaunaren metodoren laugarren partea Cegamaco escueran» (BDG)
 <ś>: *escaśac* (6), *śague* (12), *gaśocorrac* (14), *śuśen* (17).

4. J. Lizarraga:

- 4.1. «Catecismo» (ADN)
 <chs>: *gaichstoen* (3), *erdechsteco* (4), *biluchsien* (8), *chsaquitzean* (21), *chsatean* (21), *chsaquin* (22), *chsaquintasun* (27), *aichstean* (29), *berechstea* (31), *ichsurce* (51), *erdechstea* (52), *achsúri* (52).

5. P.J. Minondo:

- 5.1. «Catecismo en dialecto de Garralda» (ADN)
 <ss>: *gaisstotic* (2), *ssarriric* (3), *ssaquitea* (4), *sseac* (6), *sseiqui* (8), *ssatean* (8).

50 Hitz bat errepikaturik bada, lehen agerraldia bakarrik jaso da.

51 Erabilitako artxibategien laburdurak Gonzalez Echegaray eta Arana Martijaren (1989) katalogotik aterata.

52 Parentesien artean, testuko orrialde-zenbakia adierazi da; hau da, lehen agerraldia zein orrialdetan topatu den zehaztu dugu.

53 *Ama Virgíña Guciz Garbi Concepciocoaren oficio laburra: latíñezco itz neurtuetatic eusquerazco zortzi-coetara itzulia* (BDG) testua ere arakatu dugu, baina ez da igurzkari sabaiaurreko adibiderik.

54 Konparaketa orekatua izateko, orrialde-kopuru antzekoa aztertu dugu. Horregatik, kasu honetan 40. orrialdera arte jasotakoa aintzat hartu dugu.

6. P.J. Samper:

6.1. «Catecismo en dialecto de Jaurrieta» (ADN)

<ss>: *ssin* (4), *ssite* (5), *ssaquitea* (6), *gasstoer*⁵⁵ (6), *ssabearen* (27), *ssei* (29), *ssanez* (30), *meressitcea* (32), *Yssuriz* (35), *ssunto* (37), *issiltcen* (38), *beress-ten* (42), *ssabe* (48).

11.2. Hualde Mayoren eta Mendigatzaren igurzkari sabaiaurreko kasuak:

1. Hualde Mayo

1.1. «El Evangelio según San Mateo en dialecto de Vidángoz» (ADN)

<ss>: *anasser* (1), *ssunto* (2), *ssaquin* (2), *gassoa* (3), *ssin* (3), *ssagui* (4), *nessar* (4), *batissatan* (5), *ssussen* (5), *ssen* (5), *asscora* (5), *egoss* (6), *ssaisten* (6), *urssuaren* (6), *ssarrequitruc* (6), *quessu* (8), *gassqui* (9), *yssiqui* (9), *meressiten* (10), *gasstorequin* (10), *beresstarzunaren* (11), *ssaurien* (11), *ssuri* (11), *masselan* (11), *ssa* (12), *ssardoquitaco* (13), *guissaz* (13), *ssain* (14), *ssan* (14), *autzssco* (16), *gaissto* (16), *ssargatzetatic* (16), *ssachiz* (18), *anissco* (18), *ssinetsi* (19), *adessquidiac* (22), *nessargarri* (22), *ossal* (22), *ssar* (22), *ssardunaren* (22), *nesscassia* (23), *chiquerssco* (27), *essartruc* (30), *ssey* (31), *ssats* (34), *ssorratra* (36), *ssne* (36), *cussanla* (38), *ssatra* (39), *chacursscuac* (43), *arrainsscorequin* (43), *arrantzusscorequin* (43), *gossetic* (44), *issiquiric* (44), *granossco* (48), *Maisstruac* (48), *aurssco* (49), *sseguin* (52), *librosscua* (52), *ssneazalen* (58), *ssanlac* (61), *issariaz* (66), *mussquito* (66), *gasstaquidiac* (67), *chichasscuac* (67), *assuriaren* (75), *bissico* (78), *ossen* (84), *bisstazco* (85).

<s>: *sin* (3), *guisaz* (4), *saurien* (16), *gasto* (17), *suan* (37), *sec* (55), *bisitatra* (74).

1.2. «Catecismo en dialecto de Vidángoz» (ADN):

<ss>: *anissqui* (3), *gaisstotic* (3), *ssinestan* (4), *ssachi* (5), *ssaseriric* (5), *ssin* (5), *nessarrez* (8), *meressi* (8), *ssei* (9), *gassqui*⁵⁶ (28), *ssaguitian* (12), *ssaquitra* (13), *ssuntatu* (19), *ssatan* (36), *ssatra* (44), *ssardoqui* (37), *egoisstan* (39), *gaissqui* (39), *Goressimaco* (40), *gossenetic* (42), *batissatan* (48), *issiltan* (52), *gasstunaren* (60), *ssain* (69), *meressimentiuengatic* (74).

<s>: *sinetstia* (6).

55 Bi aldiz *gastoetatic* <s>-rekin.

56 Behin *gachqui* bildu, beharbada atzizkirik gabe *gach* idazteagatik.

2. Mendiatxaren gutuneria (AZB):

<ss>: *ssin* (2)⁵⁷, *ssunto* (2), *ssain-ssaina* (2), *ssarrekitian* (2), *gasski* (2), *ssa* (2), *ssei* (3), *ssuntan* (3), *gassto* (3), *ssakin* (4), *ssoch* (4), *essikitan* (4), *ssateco* (4), *erdisskalki* (4), *issartan* (4), *mandosko* (5), *enussaten* (5), *adesskidetarzun* (5), *egosstiari* (5), *yunyuska* (5), *issilik* (6), *assolabague* (6), *bissita* (6), *ssinetsen* (6), *lissiri* (6), *ssasstiari* (7), *ssurifikatan* (7), *anissko* (7), *sseuri* (8), *gossez* (8), *essartu* (8), *gossan* (8), *anasse* (8), *ossagarri* (8), *anisstan* (9), *obrossago* (9), *assolik* (9), *cassaletik* (10), *ossezkietan* (10), *kussare* (10), *orrasse* (10), *lassatan* (11), *asscora* (11), *ssoratiak* (11), *meressi* (11), *ssardokitu* (11), *ssenak* (11), *pusska* (11), *engos-san* (11), *sserbiga* (11), *ssigote* (11), *aspaldisko* (11), *nessarontzi* (11), *ssuritan* (12), *lessoetarik* (13), *komunkisse* (13), *ssassgu* (13), *ssura* (13), *agorssaliaz* (13), *goressiman* (13), *narossago* (13), *kussu* (14), *assuri* (14), *conssabatra* (15), *goss-tarssago* (16), *ssaseririk* (17), *ssassi* (21), *eressi* (21), *berestan* (23), *nessarez* (30), *nekesstruk* (30), *ssachi*⁵⁸ (30), *massela* (31), *assassal* (31), *pisskolte* (31), *pissa* (31), *lassosko* (32).

<ś>: *śiten* (12), *śunto* (12), *śarrekitan* (12), *śakiteko* (12), *śoch* (12), *śateko* (12), *enušaten* (12), *śarrekiten* (12), *adeškidetarzun* (12), *śoraltiak* (12), *egošten* (21), *cašal* (21), *śerbigatu* (21), *śigote* (21), *śašgu* (21), *bišikarrotu* (21), *śoralte* (21), *ašpil* (21), *urruškide* (21), *śachi* (21), *ereši* (21), *ilašaga* (22), *goriška* (22), *zerš-kobait* (23), *berestan* (23), *aspaldiško* (24), *śinets* (24), *śunta* (24), *śuri* (24), *śena* (24), *śanl* (24), *perrašil* (25), *churrušta* (25), *kaškala* (25), *ašentzu* (25), *gerošago* (25), *śainki* (25), *śeuri* (25), *bišitako* (25), *conšaba* (26), *košeča* (26), *śa* (26), *gašto* (27), *śar* (27), *śaintu* (27), *śabalko* (27), *śaguadera* (27), *śagi* (27), *śainki* (27), *śaizpil* (27), *śalepel* (27), *śalinko* (27), *śalmatu* (27), *śamarinko* (27), *śanare* (27), *śankin* (27), *śarga* (27), *śargadoi* (27), *śasergu* (27), *śaseri* (27), *śelita* (27), *śaštekulare* (27), *śaintu* (27), *śe* (27), *śeakatu* (27), *śešu* (27), *śibinko* (27), *śinaldi* (27), *śunr* (27), *śura* (27), *ašuria* (27).

<s>: *anisco* (3), *guisatra* (6), *sin* (13), *aspaldisko* (18), *sinetsen* (25), *erdiskal* (27), *saseri* (27), *asuri* (36).

57 Oraingoan, parentesiaren arteko zenbakiak zein gutunari dagokion adierazten du.

58 Behin *jach* idatzirik.

